

ASTIGARRAGA 2011



**HERRI EREDU BATEN BILA:
ORAIN DA GARAIA!**

30. aldizkaria, 2011ko uztailaren 8a

AURKIBIDEA



Historia

* Promesa de matrimonio	12
* 1660. urtean independentzia lortu genuen	20
* Gizon proba Astigarragako plazan	21
* Bide zahar berriak: errepideak, autobiak...	32




Biografiak

* Isabel Almandoz, Astigarragatik kanpo bizi...	3
* Bernardo Alberro, konponsatzaile eta olerkari	46



Herrikoiak

* Herrigintzan oinarritutako herri eredua	6
* Alberto Arizkorreta, Txiloe saioak zuzentzen	22
* Urtzi Leonet, dantza maisu	24
* Errota zaharra: gazte jendea bizi modu...	30
* Joxan Alberdi: 35 urte danborra jotzen	48
* Urteko herri bizitzaz	50




Elkartek

* Ikastolan zizarra egiten	18
* Mundarro, Gipuzkoako txapelduna	29



Natura

* Sagardo dolare tradizionalak	14
* Otarra eta kontsumo taldeak	40
* Landare exotiko inbaditzaileak	44



Kultura

* JAIK 2011	29
* José Maria de Orbe, director de cine y Aita	34
* Casa Ibai-Ondo	38
* Gloria in excelsis Astigarraga	42



Argitaratzailea ASTIGAR Elkarteak

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galarza,
MIEL JOXE Astarbe eta ROXARITO Zabalegi

Kolaboratzaileak

Antxon Agirre Sorondo, Isabel Almandoz, Ramon Santxez,
Urki Salaberria, Gaizka Irigoien, Juanxo Zuaznabar, Arantxa Arzamendi,
Garbiñe San Miguel, Xabier Urdangarin eta Josu Tellabide

Babesle eta laguntzaileak

KUTXA, ARGi Elektragailuak, CEYMA eta TXIMELA.



* Lege gordailua SS- 400 / 82* - Inprimategia: ANTZA

ISABEL



Almandoz

**“Astigarragatik kanpo bizi arren,
herria bihotzean daraman
astiartarra”**

**35 urte baino gehiago dira Astigarraga utzi zuela,
famieliarekin Donostiara joateko, baina berak beti izan du
herriarekin lotura berezia, berak gogoratzen dituen istoriez gain
ikerketatxoak ere egin ditu bere herria hobeto ezagutzeko.**

**Norberto Almandoz musikariaren iloba, Astigarragako nagusi askok
“Almandoxene”ko dendan gogoratzen dute oraindik.**



Bere Donostiako etxean hartu gaitu Isabel

Almandozek elkarrizketa hau egiteko eta lehen lehenik bere haurtzaroaz galde egin diogu.



Nola gogoratzen duzu zuk Astigarraga?

Nere oroimenean Astigarraga herri zoriontsua da... Hori bai, ez zegoen dirurik, familia guztietan zegoen beharra, gizonezko gehienak Hernaniko lantegietara joaten ziren lan egitera eta orduan lanean arriskuak eta gaitzak asko ziren. Gizon asko hil ziren gazterik. Oraindik gogoratzen dut atzo balitz bezala, herriko plazan neska koskorak jolasten ari ginela nola iritsi zen lagun baten aita tranbiak harrapatu eta hil zuen albistea. Familia hura zerua goian eta lurra behean geratu zen.

Beharra bai, baina elkartasun handia zenuten garai hartan...

Zalantzarik ez izan, denok genekizkien besteen beharrak eta denak ahal zen neurrian laguntzeko prest. Seme batentzat botak behar baziren, edo alkandora... zeukanak naturalidade osoz emango zizkion, naturalidade osoz. Nere etxean nik ez dut behar larrik ikusi, aitona-amonen garaiaz geroztik denda koxkorra izan genuen eta hura zen gure heldulekua. Osaba apaizak ere laguntzen zigun, baina hala eta guztiz ere, ez dut sekula "gehiegikeriarik" ezagutu gurean. Nere aitona-amonen etxean ere gazta mehe ebakitzen zen, bestalde, ikusteko moduan. Gogoan dut baita ere, amonak bere etxean baserriko neskatxa hartu zuela, egunero eskolara etortzeko urrutiegi bizi zelako... etxeko bat gehiago izan zen.

Eta eskola, jolasak nola gogoratzen dituzu?

Askatasuna datorkit burura, eta esango dizut zergatik... Behin baino gehiagotan eskolara joan beharrean Goiko Iturrira joan izan nintzen eta maistrak jakin ere ez, hori bai askotan putzura erori eta orduan jakiten zuten egia gurasoek. Nere etxeko esaera da Goiko Iturriko putzura erori ez dena ez dela astiartarra. Eskolara joateko baldintza bakarra zegoen neskentzat, kuleroekin joatea eta ez zen beti betetzen. Jolasei buruz berriz, guk dena asmatzen genuen. Ez zegoen jostailurik eta geok ginen jostailuak. Kontzejupean aritzen ginen, eta euria eginez gero udaletxea zen gure jolastokia. Eskaileratan aritzen ginen, goian mutilak eta behean neskak: "manta jokora", begiak itxi eta nor pasatzen zen asmatzeko jolasera... Baina zer bait gustuko bagenuen, horixe antzerkia egitea zen. Antzerki dotoreak egiten genituen Donostiatik arropak eramanda.

Garai hartan Plazako bizitza, nolakoa zen?

Garai hartan emakumea etxe zuloan egoten zen eta plazara irten eta besteekin elkartzeko gauza handia zen. Plaza kontu guztien erdigunea bilakatu zen. Kontu sanoak bai, baina murmurazioen gunea ere bazen plazako "pretil" famatua. Oraindik ere begi bistan dut plazako etxe bakoitzean zein bizi zen, zenbat haur familia bakoitzean...

... gaixotasun batek kutsatu du
Astigarraga, beste herri asko
bezala, eta gaixotasun horren
izena « Espekulazioa » da.



Aurrera eginez... atzo eta gaurko Astigarragaren artean, aldaketa asko ikusten dituzu?

Hainbat gauza garbi ikusten ditut eta lehenengoa hau da: gaixotasun batek kutsatu du Astigarraga, beste herri asko bezala, eta gaixotasun horren izena «Espekulazioa» da.

Gogoratzen dut nik ezagutu nuen azken markesak ez zuela urteetan bere lurrik saldu. Lehena Eibarko eskultore bati saldu zion nire osaba apaizak bitartekari eginda, eskultorea lagun zuelako eta gaur egun etxe hori ondare artistiko izendatu dute eta ez dute botako.

Gauzak ez dira ondo egin, errespetu gehiago behar zuten. Astigarraga herri berri bat egin nahi izan dute ero-soagoa baina horrek alde txarrak ere baditu, herria garestitzea eta kontradikzio ugari ekarri ditu, lur sail doto-reak etxez bete dituzte.

Eta herriko plazaz hitz egingo bagenu?

Notarik jarri behar banio 1-5 bitartean, bi eta erdi jarriko nioke, gaintitu, justu-justua.

Herriko plazak herriaren historia erakusten digu, bertan bizi direnei buruz hitz egiten digu baina Astigarragakoak ez du bere historia mantendu.

Udaletxea bai, oso txukun jarri dute, errespetatu dute. Txomin-Ene botatzea aldiz astakeria izan zen.

Oso etxe dotorea zen, Pildain gotzainaren amak bertara etortzeko asmoa zuen... Beheko aldea inguruko egur hoberenarekin egina zegoen, "estilo sevillanoa" zuen etxeak, sarrera ere dotorea zuen eta inguru guztia intxaurrondo beteta zegoen.

Eraikin horretan gauza asko egin zitezkeen, baina etxe hori botatzea pilotalekua bertan egiteko, astakeria izan da.

Eta zuretzat zertan hobetu da Astigarraga?

Herria apaintzearekin batera jendea ere apaindu egin da, ilusioak piztu dira, orain bizi-poza sumatzen dut astiartarren artean. Ireki ere egin da jendea, elkarriketarako gogo sumatzen dut, garai batean dena ilun eta zomorro zena orain argiz bete da. Herri mugimendu asko ikusten ditut gainera, kultura arloan, musika inguruan, kirola, adinekoak, gazteak...

Eta elkarriketa amaitzeko azken kontu bat, esaguzu zein den Astigarragako zure txoko preziatua.

Hautzaroari lotuta Goiko Iturri, bertan gogoratzen ditut emakumeak arropa garbituz... zenbaitetan joan nintzen Goiko Iturrira ur fresko bila eta zenbat txarro puskatu nituen.

Eta bizitzan zehar lotura handia izan dut klausurako mojen komentuarekin... bertan izeba moja nuen eta.

GARBIÑE San Miguel

HERRIGINTZAN OINARRITUTAKO HERRI EREDUA

Ukaezina da gure tokiko administrazioetako kudeaketak eta esku-hartzeak eragin nabarmena dutela gure herriko bizitzan. Urteek eta legegintzaldiek aurrera egin ahala, funtzionatzeko eskema mekanikoak ari gara errepikatzen, eta horiek herria ulertzeko modu jakin bat uzten dute agerian batzuetan: alderdi ekonomikoa da jarduketan alderdi nagusia, hirigintza oparotasunarekin parekatzen da, eta espazioa okupatzeak herria egitea esan nahi du, besteak beste.

Udalen jardun nagusia hirigintzako planetan, plangintzako arau subsidiarioetan edo esku hartzeko programetan oinarritutakoa izaten da. Betiere udal-aurrekontuaren babesean. Aurrekontu horretan, inbertsioen atala izaten da gustukoena, irudi ona emateko eta "aberastasuna" erakusteko, nahiz eta ondoren bertan jasotako konpromiso asko gauzatu ez.

Horiek horrela, bigarren mailan geratu ohi dira herri egiten gaituzten alderdiak eta herriari bizitasuna ematen diotenak. Bigarren mailan uzten dira hezkuntza, giza balioak, kultur identitatea, herritarren sustapen sozioekonomikoa, hiri-ingurunea eta ingurumena eta herritarren arteko elkarbizitza bezain alderdi garrantzitsuak. Horiei ez zaie duten garrantzia ematen.

“... alderdi ekonomikoa da jarduketan alderdi nagusia, hirigintza oparotasunarekin parekatzen da, eta...”



Horrela jokatzeko duen gizarte batean erakusleihen antzeko izaten dira udal-hauteskundeetarako deialdiak, horietan guztia egiteko edo eraldatzeko modukotzat jotzen baita. Oso bestelako zerbait da egiten diren proposamenek edo aurkezten diren alternatibek benetako oinarriren bat izatea. Gainera, egiten diren proposamen horiek aztertuz gero ikusi ahal izango dugunez, proposamen horiek ez dute norabide sendorik, ezta benetako loturarik ere, herria eta horren nortasuna egituratzeko eta/edo herri horren izaerari bide emateko.

Jakina, ikuspegi kritiko eta eraikitzaile horretatik begiratuta, ezinbestekoa da, gure ustez, udalaren jardunak egoeraren inguruko diagnostiko benetan sakona izatea oinarri, horrek emango digulako aukera jarduteko helburu garbi batzuk izateko eta herriaren inguruan dugun ikusmoldea definitzeko. Hori izango da guztiona izango den eta guztion konpromisoa zutabe izango duen herri-eredua osatzen hasteko abiapuntua.

Hori gogoan, udalbatza osatu berrian ordezkaritza lortu duten taldeei eskatu diegu beren jarduteko printzipioen inguruko xehetasunak emateko, herri-eredu hori definitzeko bost esparru nagusiren gainean: lurraldearen antolamendua, sustapen ekonomikoa, esku-hartze sozio-kulturala, gizarte-politika eta azpiegitura eta zerbitzuak.

Azkenik, hemen egin nahi izan dugun ekarpen honek herria izan behar du abiapuntu eta helmuga. Bestela esan, herritarren benetako partaidetza eta konpromisoa behar ditugu, erabakiak hartzeko garaian, hori baita demokrazia parte-hartzailearen oinarria. Gure herriak ekimen ugari izan du norabide horretan, eredu izan daitezkeenak. Beste hainbaten artean Herrikoi elkar-tea egiten ari den lana nabarmendu nahi genuke, herri-ekimena den aldetik eta bertako pertsona, premia eta interesen erakusgarri den heinean.

**Eutsi horri,
orain da garaia eta!!!**



UDALERRI EREMUAN JARDUTEKO ARLOAK:

Hona hemen udal ordezkaritza lortu duten alderdi politikoek, bost arlo zehatz hauei buruz emandako printzipioen azalpenak.



LURRALDE ANTOLAKETA

**HIRIGINTZA - ETXEBIZITZA
INGURUMENA - NEKAZARITZA
MUGIKORTASUNA**

Hirigintza politika ezinbestekoa da astigartarron beharretara egokitzea, ezin dugu espekulazioa eta arrotzak zaizkigun interesak bultzatzen dituzten proiektuak onartu. Hirigintzak, batik bat, astigartarron etxebizitza eskubidea bermatuz lan egin behar du, gure baserritar iragana eta nola ez, etorkizuna, inola ere baldintzatu gabe.

SUSTAPEN EKONOMIKOA

**ENPLEGUA
JARDUERA EKONOMIKOAK
AURREKONTUAK - FISKALITATEA**

Erakundek lanak eta bi egin behar dituzte, herritarren enplegua bermatzearren, eta egun bizi dugun egoera ekonomikoaren aurrean, Astigarragako udalak ezin du salbuespena izan, beti ere herriari balioa erantsiko dion ekonomia jasangarria bultzatuz. Bide honetan, aurrekontu partehartzaileak, bidelagun nagusiak izango direlarik.

ESKU-HARTZE SOZIOKULTURALA

**HEZKUNTZA - KULTURA
EUSKARA - GAZTERIA
KIROLA**

Herri gisa izan eta hedatu ahal izateko, Euskal Herrian eta gure Astigarragan berezko kultura, hizkuntza, hezkuntza eta kirola dugula sinetsi behar dugu. Hezkuntzak, kulturak eta euskarak, gure nortasuna eraiki dute mendeetan zehar, eta hala izan behar du hurrengoetan ere.

POLITIKA SOZIALA

**GIZARTE ONGIZATEA - BERDINTASUNA
ELKARBIZITZA - OSASUNA
HERRITARREN PARTAIDETZA**

Erakunde Publiko ororen abiapuntua eta helmuga, pertsonak izan behar dira, eskubide guztiak duintasunez bermatuak izango dituzten gizabanakoak. Ezinbestekoa da solidaritatean, justizian eta berdintasunean oinarriak izango dituen gizarte bultzatzea, benetan, aurrera egin nahi badugu. Bide horretan, udalek duten eginkizuna ezinbestekoa da.

ANTOLAKUNTZA ZERBITZUAK

**HERRI MANTENTZE LANAK
AUZOAK - GARRAIOAK
ZABOR BILKETA - GARBIKETA**

Herriak herri izango dira, auzoek eta auzotarrek herriari ematen dioten nortasunari esker. Herri nortasuna ez galtzeko, auzotarren eta herritarren arteko harreman naturalak bultzatu behar dira. Ez ditugu nahi gutxiengoaren interesen alde egiteko pentsatuak dauden eta etorkizuneko belaunaldiak baldintzatuko dituzten egitasmorik.



Hirigintza aldetik, aurreko legealdian onartu genuen Plangintza Orokorrak ezarritako dauzkan ildoak jarraitu nahi ditugu eta herritarren artean kezka sortu duten gune eta proiektuak berraztertu. Ingurumenarekiko babes eta kontrola eta nekazaritza sustatzeko konpromezua. Bidegorri sarea osatu, bailarako herrietara garraio aukerak hobetzeko neurriak hartu.

H1en eskutik ateratako Plan Orokorrak babespen Ofizialeko Etxebizitza gehiago ekarriko du eta ekipamentu berriak eta garapen orekatu eta jasangarria ere bai. Baserritarren aldeko politikak bultzatu behar dira, adibidez agroaldeak. Garraio publikoa hobetu behar da, aldiroktasun haundiagoa lortuz eta geltoki berriak ere. AHTren geltokiak gertuko zerbitzua ekarriko digu eta horrekin batera konexio eroso eta seguruak Euskadi, penintsula eta Europarekin.

Zarkumendegi poligonoa garatzeko proiektuarekin jarraitu. Langabetuen poltsa sortu. Zergak ez igo. Aurrekontuetan gastu korrontea zorrotz zaindu. Diru-laguntzekiko irizpideak zorrotz.

Lana egiten jarraitu behar da poligonoen eta enpresen lehiakortasunaren alde. Bide hori jarraitu behar da, aktibitate gehiago gurera erakarritik. Eta horretarako Zarkumendegiko poligonoa ezinbestekoa da. Turismoa eta komertzioa bultzatu behar dira baldintza egokietan dagoen Sagardoetxe baten bitartez. Udaletxeak daukan gaurko zorra, ehuneko 6a dena, bere horretan mantendu beharko litzateke, gastuak eta diru bilketaren artean oreka jarriaz.

Ikastola babesten jarraitu. Kultur-etxe berriaren lehiaketa bideratu: musika eskola berria bertan ezartzeko. Kiroldegia handitu eta berritu. Buruntzaldeko herriekin batera, euskara egitasmoak sustatzen jarraitu. Aisialdiko kirola sustatu. Auzoetan kirol-kantxak ezarri.

Astigarragako haur hezkuntza bermatu behar da. Eusko Jaurlaritzaren utzikeriaren aurrean. Plan Orokorrean ikastola berriarentzako lur erreserba egin genuen eta hori gauzatu beharko litzateke. Hezkuntza Saila bere postura aldatzea espero dugu eta ditugun bi zentru horien batzea onartuko duela etorkizunean. Beharrezkoa da polikiroldegia instalazioak hobetzen eta eguneratzen jarraitzea. Eta Kultur Etxe berria eraiki behar da lehenbailehen.

Gizarte-babesa bermatu; diru-laguntzen zorrotztasuna. Berdintasun tailerrak herriko elkarteei luzatu. Lana, familia eta aisialdia uztartzeko udal politika eta udal ordutegia ezarri. Udal ihardueraren Boletín Elektronikoa sortu eta herritarrei jakinarazi. Partaidetza bultzatu eta demagogarrik ez egiteko konpromezua.

Gastu soziala handitu behar da. Adineko pertsonen ardurarako babespeneko etxe berriak ditugu eguneko zentroarekin batera. Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun lehen plana jarri dugu martxan. Ildo hauek indartu behar dira. Beti izan gara politikaren hiritarraren partaidetzaren alde hainbat arazoetan erakutsi dugunez. Ikusiko dugu Atez Atekoarekin ea Bilduko ematen dion benetan herriari hitza.

Auzoak orekatuko dituen mantentze-lan programa. Herriko irisgarritasun-mapa. WC publiko gehiago jarri. Bostgarren kontenedorea ezarri. Santiagomendirentzat zerbitzu sistema bertako bizilagunekin batera ezarri.

Gu hasitako auzoen eraldaketak aurrera jarraitu behar du. Eta Hernanin desastre bezala ageri izan den atez ateko zabor bilketa Astigarragara ekarri nahi bada, erreferedum bat egitea proposatuko dugu. Guztiz beharrezkoa da herritarren bizitza eta baita jateko ohitura ere hainbeste baldintzatu dezakeen erabakia herritarren eskuetan jartzea. Auzoetako bideak berritu eta konpondu behar dira.

2011ko Udal hauteskundearen emaitzak

ERROLDA	3.606 (Emandako botu kopurua: 2.204)							
PARTE HARTZEA: % 61,12			ABSTENTZIOA: % 38,88					
	BILDU	EAJ PNV	H I!	PSOE	PP	ARALAR	AAB	EB-B
EMAITZAK	1.050	352	286	111	105	101	98	34
ZINEGOTZIAK	7	2	2	---	---	---	---	---
ORDEZKARITZA	% 48	% 16	% 13	% 5	% 4,8	% 4,6	% 4,5	% 1,6



ANDONI GARTZIA
25 urte
Enpresaritza ikasketak



MAITE OLAZIREGI
47 urte
Irakaslea



AGIN REZOLA
26 urte
Kazetaria



IONE OLAZIREGI
26 urte
Irakaslea



BERTA AROZENA
53 urte
Administraria



ISABEL OTERO
54 urte
Laborategiko teknikaria



RAUL REDIN
44 urte
Langilea



ZORIONE ETXEZARRAGA
43 urte
Etxekoandrea



RAMON ARANZASTI
55 urte
Seguritate zaintzailea



BIXENTE ARRIZABALAGA
56 urte
Baserritarra



IMANOL LIZARRALDE
48 urte
Filosofian lizentziaduna

UDALBATZA BERRIAREN OSAKETA



2011ko ekainaren 11ko goizeko 11:55ean, udaletxeko batzar aretoa beterik zegoen. Denok zain geunden, maiatzaren 22ko udal hauteskundearen arabera udalbatza berriaren osaketa ekitaldia ikusteko. Jendea elkarrekin solasean zebilen eta udal ordezkari berriak ere herritarrekin hizketa bizian.

Udaletxeko erlojua hamabiak jotzen hasi bezain pronto, udalbatza eratzeke osatu beharreko adin mahaia eta kideak bertan zeuden, alegia, gazteena Andoni eta zaharrena Bixente. Idazkari lanetan Xabin aritu zen.



Zinegotziei kargu hartzeko deia egin zitzairen eta banan-banan, txalo-zaparrada jasoz, beren eserlekuetan jarri ziren denak. Ondoren, alkatea izendatzeko hiru hautagaiak zehaztu ziren eta botazioari ekin zioten zinegotziek.

Bozkaren emaitza idazkariak eman zuen, eta horren arabera, **Andoni Gartzia, Bildu koalizioko zerrendaburua, izendatu zuten alkate.** Segituan, bertaratutako guztiek txalo eta aldeko ohiuak helarazi zizkieten alkate berriari.



Jarraian, Euzko Alderdi Jeltzaleko Zorionek eta H1! alderdiko Bixentek Andoni zoriondu zuten, eta udaletxean lanean konpromiso osoz arituko direla nabarmendu zuten biek. **Ekitaldia bukatzeko, Andoni alkateak** hitza hartu zuen eta honako **mezu esanguratsu eta baikorra zuzendu zien bertakoei eta herritar guztioi:**

“Euskal Herriak bizi duen aro berri honetan, aldaketa garai honetan, aldaketa ere iritsi da Astigarragara. Aurrean dugun erronka nagusia, Euskal Herrian behingoz egoera demokratiko bat lortzea izango da, non eskubide zibil eta politiko oro onartuak izango diren eta Astigarragari dagokionez, zer esan, erronkak, anitzak eta ugariak direla, baina argi izan, denon artean, udala eta herritar ororen artean, dugun gogo eta lan grinarekin bat, denon Astigarraga hobe bat eraikiko dugula. Hoberako aldaketa iritsi da bai Euskal Herrira, baita Astigarragara ere. Eskerrik asko eta Zorionak.”



PROMESA DE MATRIMONIO

El 30 de junio de 1591 se presenta ante Miguel de Arbide, escribano de Astigarraga, Catalina de Herretegui, vecina de dicha población y dice que Pedro de Goardia, vecino asimismo de Astigarraga "la avia abido carnalmente siendo donzella birgen con promesa que la avia hecho de que se casaria con ella y debajo del la dicha promesa" dio a luz una niña de nombre Magdalena de Goardia, pero luego el dicho Pedro no quiere casarse con Catalina. Esta entabla pleito contra el dicho Pedro ante el Corregidor de la Provincia, pidiéndole se casase. Pedro fue tomado preso y encarcelado. Tras oír a ambas partes se acuerda que Martín de Goardia, padre de Pedro, pagará a Catalina 30 ducados: 12 para la festividad de San Miguel de ese año y 18 para la misma fecha del año siguiente y ponen personas fiadoras que les avalan¹.



Otro caso semejante lo tenemos en ese mismo siglo, en la cercana población de Lasarte. La joven se llamaba María de Hechabe y era natural de Sumbilla (Navarra) pero habitaba en Aduna (Gipuzkoa). En 1575 se querelló contra Joanes de Bengoechea, vecino de Lasarte, por estupro.

Concretamente le acusa de que le "había quitado su limpieza y honestidad con halagos y promesas de casamiento y haber dejado burlada y engañada". Cuando Joanes pretendió casarse con otra, María le denunció y, a pesar de que diversos intermediarios intentaron pactar un arreglo entre ambas partes, nada consiguieron, entablándose la oportuna denuncia y pleito. Por fin, el 11 de julio llegan a un acuerdo por el cual Joanes abonaría 10 duc. a María como compensación, pagándole 5 duc. ese día y los otros 5 al año siguiente. Como fiador firmó don Luís de Urrutia, vicario de la iglesia de San Pedro de Lasarte².

Para aclarar el tema diremos, que tal y como hemos visto en numerosos documentos, tras una promesa de matrimonio era habitual que tuvieran relaciones, y estas eran las consecuencias. Curiosamente la chica pide se case, aunque el chico ya no quería. Desde luego la estabilidad y armonía de dichos matrimonios sería muy dudosa.

El matrimonio consistía en que el chico y la chica se aceptasen mutuamente delante de un sacerdote. Esta promesa de matrimonio se realizaba en el siglo XVI frecuentemente a las puertas de su propia casa. Posteriormente se hacía a las puertas de la iglesia. Tras la bendición sacerdotal se pasaba al interior y el nuevo matrimonio oía misa. Solía aprovecharse para ello la primera misa de un día de labor cualquiera, sin más boato, ni ceremonia. Luego volvían a la casa donde iban a vivir (generalmente el de los padres de algunos de ellos) y continuaban con las labores diarias del caserío.

LAS PROCLAMAS

A los años se introdujo el tema de las "proclamas". Esto es, antes de proceder a un matrimonio en la iglesia se celebraban las "proclamas" (proclamación pública del próximo matrimonio), por si alguien tuviese objeciones que hacer al enlace. Así le sucedió a un vecino de Legorreta en 1672: Domingo de Azaldegui. Josepha de Abarria, de Lazkao, denunció que cuatro años antes Domingo le dio palabra de casamiento la víspera de San Marcos Evangelista y le dijo que no conocía a otra mujer. A los meses, "entre dos luces de par de tarde", Josepha

perdió su virginidad en la casa de Juan de Garín, tío de la demandante, donde ella estaba de servicio. Sus contactos carnales se repitieron otras veces sin que llegara a consumarse el matrimonio. En su defensa ante el rector de Legorreta y el escribano del pueblo, Domingo declaró que efectivamente conocía a Josepha de "vista, habla y comunicación", pero nunca le dio palabra de casamiento ni tuvo relaciones sexuales. El corregidor no creyó en su versión y mandó tomar preso a Domingo en noviembre de 1672. Al año siguiente se hizo audiencia pública para

dirimir el litigio. A favor de Josepha declararon varios testigos como Andrés de Aguirre, vecino de Legorreta de 40 años, para quien Josepha era mujer modesta, recogida y buena persona. Vecina del pueblo y compañera de habitación de Josepha era María de Murua, de 52 años, mujer de Esteban de Jáuregui, quien declaró haber sorprendido una noche de luna clara a Domingo tumbado sobre Josepha, él con los calzones bajos y en postura indecente. Varias mujeres más aseguraron haber oído que Domingo privó a Josepha de su virginidad, y más lejos aún fue Miguel de Garicano, de 43 años, testigo de una discusión entre Domingo y Josepha en la que ésta le recordó que le había dado palabra de matrimonio, extremo que él negó, y cuando ella le dijo que estaba preñada Domingo le respondió que a saber de quién sería, a lo que Josepha exclamó “¡buen pago me das!”. Tras las declaraciones y las oportunas investigaciones, el 7 de septiembre de 1673 el Obispado de Pamplona condenó a Domingo por daños de estupro a pagar 101 rs. y 6 cuartos a Josepha en el plazo de seis días, así como la mitad de las costas. A partir de ahí, Domingo es libre de casarse con quien quiera. Es decir, fue condenado por estupro pero no se demostró que Domingo diera palabra de casamiento a Josepha³.

LOS DOTES

Para terminar hablaremos del tema de los "dotes". En todo tiempo y lugar, el matrimonio ha variado mucho según la posición económica de las familias de los contrayentes. Lo de «contigo pan y cebolla» tal vez valga para los enamorados, pero raramente para sus progenitores que desean una posición estable para sus hijos una vez que abandonan el hogar. Los ejemplos que traigo a continuación me parecen interesantes por lo que enseñan del modo de vivir y de pensar de otras épocas. Se trata de dos contratos de matrimonio y de un pleito por viudez.

Vayamos con el primero, un contrato matrimonial firmado el 30 de diciembre de 1663 con motivo del casamiento entre Domingo de Murguiondo y María San Zuru de Zuloagamunoa, ambos de Mutiloa. El joven marido aportaba a la unión 40 duc. de un censo (préstamo) que tenía sobre la casa Aguirrezabal y sus pertenencias; una heredad llamada Cortaberri del mismo valor; 20 ovejas que poseía en el caserío Lencaran y que también valían 40 duc.; 20 duc. que le debía Ignacio de Oscorta, vecino de Mutiloa; 40 duc. de sus legítimas; 49 duc. que le adeudaba Domingo de Arostegui, de Zerain, de una yunta de bueyes; y 20 duc. que le debía el concejo de Mutiloa. Los padres de la novia, Andrés de Zuloagamunoa y María López de Aguirre, dotaron a su hija con 60 duc., «dos camas cumplidas al uso de la tierra», un arca y una vaca. Vivirían en la casa familiar y si decidieran irse les entregarían la mitad de la cosecha de agosto de ese año. Al morir los padres, la casa con sus bienes que-

daría para el joven matrimonio con obligación de cubrir los gastos funerarios⁴.

El segundo contrato es de pocos años más tarde: 1667. Los nuevos contrayentes se llamaban Pedro de Izaguirre, de Mutiloa, y Antonia de Goytia, de Gabiria. Gregorio de Izaguirre y María Juan de Arana, padres del novio, ofrecieron el caserío Mendizabal de Mutiloa para que en él residiera la pareja pese a encontrarse necesitado de reparos por valor de más de 100 duc. A los padres les quedaría una habitación, parte de las cuadras para su ganado así como una cuarta parte de las tierras del caserío mientras vivan, sin pagar nada a cambio, ya que todo ello quedaría para Pedro y Antonia a su muerte. También les dejaban las herramientas de labranza y el ajuar, con tal de que a sus hermanas Pedro les compensara con 6 duc. María, Catalina, Mariana y Magdalena Izaguirre, las hermanas, mayores de 14 y menores de 25, aceptaron estas condiciones renunciando a sus derechos. Gregorio y María, padres del novio, otorgaron al nuevo matrimonio la mitad de la cosecha de agosto del año siguiente, dos ovejas y un lechón por valor de 4 duc., «un az de tocino de quatro que ay en casa salados, el mejor», una anega de trigo, otra de maíz, un arca grande con capacidad para 10 anegas de trigo, y «una cama cumplida» para cuando ellos dejasen esta vida. Miguel de Goytia, padre de Antonia, la novia, aporta al matrimonio 160 duc., una cama, tres cabras, un cabrito, una anega de trigo y un arca; además, la chica irá «vestida cuatro veces al husso de la tierra» (disponía de cuatro vestidos), y tiene «un manto de aniscote». Si se disuelve el matrimonio, «Dios no lo quiera», por fallecimiento de alguno de los cónyuges y sin descendencia, o si teniendo descendencia esta muere antes de ser mayor de edad, se devolverá a cada familia lo aportado «según es costumbre en esta tierra»⁵. Esta última hipótesis enlaza con lo que viene a continuación: el caso de Isabela de Thelleria quien tras la muerte de Francisco de Mendia, vecino de Mutiloa enviudó sin descendencia. Francisco era primogénito y heredero de la casa de Andramazotegui, la cual tras su deceso revertió nuevamente a los Mendia, y más concretamente en Juan Gregorio de Mendia, cuñado de Isabela. A ésta se la permitió seguir viviendo en la casa y usar las tierras por espacio de once años desde febrero de 1767, sin pagar nada a cambio; quedarse con ajuar, ropa y trastos del domicilio, así como las tierras sembradas en vida de su marido. La viuda tenía que sufragar los funerales, entierro y demás gastos, además de sacar cuatro misas con responsos y pagar las cuentas que aquel tuviera pendientes.

1) ARCHIVO HISTÓRICO DE PROTOCOLOS DE GIPUZKOA (A.H.P.G.-G.P.A.H.). OÑATI. Leg. 3/223. Fol. 27.

2) A.H.P.G.-G.P.A.H. Secc. III. Leg. 959, fol. 65.

3) ARCHIVO DIOCESANO DE PAMPLONA (A.D.P.). Leg. 1097/6.

4) A.H.P.G. Leg. 2/2608. Fol. 138.

5) A.H.P.G. Leg. 2/2658. Fol. 74.



BORTANEKO ESKUZKO TOLAREA

Astigarraga eta inguruetako SAGARDO TOLARE TRADIZIONALAK

Asier Agirresarobe eta Josu Tellabide

Sagarra jotzeko garaian dolare pneumatikoak dira nagusi gaur egun, hidraulikoak ere oraindik erabiltzen diren arren. Horien aurretik, ordea, motore elektriko eta uhalen bidezko burdinazko ardazdun dolareak ziren garaiko teknologia sagar prentsaketan. Eta bizpahiru mende atzera eginez gero, gure baserrietan zurezko haridun torlojuzko eta kontra-pisudun palanka-beso handi baten bidezko modeloak aurkituko genituzke.

Sagarra zanpatzeko makinak

Azken mota horietako sagarra zanpatzeko makinak arrastorik ia ez da geratzen Astigarraga eta Urumea partean, suteek, gerrateek eta sagardogintzaren eboluzioak berak desagertzera eramaituzte. Aldiz, XIX. mendearen hondarean zabaltzen hasi ziren ardazdun dolareetako ale mordoxka iritsi zaizkigu gaurdaino, horietako gutxi batzuek, gainera, lanean diraute.

Dolare tradizionalen multzoan sartu ditugunak dira, aska edo azpilaren erdian zutikako ardatz metalikoa dutenak. Teknologiak aurrera egin ahala aldaera eta pieza berriak sartu zitzaizkien, hala nola, porlanezko aska, desmuntagarriak diren sare edo kaiolak, eta XX. mendearen bigarren hamarkadan lehen instalakuntza motordunak, eskuzkoak ordeztuko zituztenak. 2 eta 3 zaldi potentziako motor elektrikodun dolareak dira, polea eta uhalen bidezko transmisio sistema bitartez sagarra birrindu eta zanpatzen dutenak, eta mota honetakoak dira, hain zuzen, egundaino iraun duten gehiengoak.

Inbentarioa

Hala, 2010eko martxoan eta apirilan zehar, Sagardoetxeak hala eskatuta, Astigarraga eta inguruko herrietako sagardo dolare tradizionalen inbentarioa burutu da, bertako dolare tradizionalen ezaugarriak eta egoera ezagutzeko nahiari erantzuteko asmoarekin.

Horretarako, lehen fase modura, Astigarraga eta bere eragin ingurua osatzen duen esparrua aztertu da. Zehatzago izateko, arakatutako eremua honakoa izan da: Astigarragako udalerri osoa; mugakide dituen Donostiako Amara-behea, Martutene eta Altzako zati handi bat; Urumearen eskuinaldean kokatutako Hernaniko Ereñozu, Epela, Akarregi eta Martindegi auzoak; eta Errenteriako Zamalbide auzotik Astigarragako mugatik gertueneko alderdia.


Lehendik ezaguna zen informazioa oinarri hartuta, baserriz baserri, etxez etxe aritu gara garai bateko dolareen bila. Bertakoekin, eta ahal dela adineko jendearekin, baserrietan sagardogintza ohikoa zen garaiaz eta ezagutu dituzten dolareez aritu gara solasean.

Bati eta besteari ateratako hari muturrari tiraka, aztertutako eremuan, gaur egun oraindik 35 dolare tradizional aurkitu ditugu, garai batean izan zirenetatik urrun, baina hasierako usteak baino dezente gehiago.

ELIZONDO



Tolarea



Tolarearen kokapen krokisa



Upelak

Sagardoa egiten duten baserriak

Oraindik sagardoa egiten duten baserrien kopuruari dagokionez, bestelakoa da egoera: Astigarragako hiru dolaretan besterik ez da sagarra jotzen, aztertutako Hernaniko zatian lautan, Errenterian bitan eta batean ere ez Donostiako Amara inguruan. Baina nola bestela Astigarraga eta inguruko sagardo industriaren ondoan?

Dolare tradizionalak gaur egungo sagardotegietan

Baserri eta etxeetan galdetzeaz gain, egungo sagardotegietan ere izan gara dolare tradizionalen bila. Oro har, dagoeneko prentsa pneumatiko moderno batek ordezkatu du dolare tradizionala, eta zaharra leku gabezia dela eta, erretiratu izan da. Hala ere, badira aparteko dolare tradizionalak mantentzen dituzten bi sagardotegi, Gartziategi eta Barkaiztegi. Nahiz eta egun erabili ez, lan handirik gabe martxan jartzeko moduan dituzte motor elektriko batez mugitutako ardatz bikoitzeko prentsa eta matxakak. Orioko Ondoazabal enpresan egindako prentsa industrialak ere badira batzuetan, lanean aritzen direnak gainera; eta noski, sagardogintzarekin loturiko tresneria tradizionala gordetzen dute hainbatek, sarritan erakusgai dutena: matxakak, garliak, txiskuak, pisoiak, kizkiak...

Bildutako informazioa

Aurkitutako dolareetan, beharrezko argazkiak ateratzeaz gain, ahal izan ditugun datu guztiak jaso dira: tipologia eta ezaugarri nagusiak, lan iraunaldia, ekarri zuteneko garaiko kontuak, duela ez hainbestekoak, eta abar, baita oraindik mantentzen dituzten sagardogintzako elementu guztien zerrenda ere: upelak, matxaka, onilak... Bildutako informazioarekin fitxa moduan aurkeztutako datu-basea eraiki da, bai baserri edo etxeetakoak, bai egungo sagardotegi handietan aurkitutako lehengo dolareenak.

Jarduera zaharra


Eginkizun hau jarduera zahar honen inguruan egiteke dauden beste azterketa eta datu bilketa sakonagoentzat ekarpen bat besterik ez da izan. Izan ere, emeki-emeki badoan belaunaldiak, mendez mendez, urtez urte, bizimodu eta usadioari esker iraun duen kultura oso bat darama berarekin, eta tartean sagardogintza tradizionalaren mila kontu, ezagutza eta jakintza.

Amaitzeko

Amaitzeko, ezin gera gaitezke, dolarea eduki edo ez, etxe guztietan jasotako harrera beroa eskertu gabe. Abegitsu hartu gaituzte, dolarea ikusteko eta argazkiak ateratzeko atea den bestean zabaldu, eta gogoa dutena kontatu digute. Bide beraz, Sagardoetxeari ere gure esker ona adierazi nahi diogu elkarren artean lan hau burutzeko emandako aukeragatik.



Goikoetxeko tolare eta matxaka



Pikoagako tolarearen kokapen krokisa



Ermañako tolare mekanizatua

Ondorengo taulan lan honetan aurkitutako tolare tradizionalen berri ematen da, etxez etxe, baserriz baserri.

ASTIGARRAGA	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
SANTIAGOMENDI			
Olabide			
Lagatzaga (Irastorza)			
Lagatzaga (Urbistondo)			
Irauntza			
Artola			
Pikoaga			
Illagorriene			
Zabale			
Goikoetxea			
Bortanea			
Ermaña			
Zimelurritzaga			
Aizeleku			
Manixene			
Elizondo			
Larrabide			
Agiñastegi (Arzelus)			
ERREKALDE			
Argindegi			
Errekaldezar (Aia)			
ERGOBIA-GURUTZETA			
Nobleza			
Gurutzeta (Xaldibinia)			
Erreronea			
GALTZAUR			
Portutxo			
Gaztañaga			
Emeterio-enea			
Etxabe			
Usategieta			
Taula (Etxeberria)			
Taula (Zapiain)			
Larraburu			
Bidegain			
Telleribea			
Tellerigoia			

ERREENTERIA	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
ZAMALBIDE			
Lubeltzaberri			
Aitzondo			
Gure Nahia. Txabola			
Bordazar			
Arkiri			
Susperregi			
Otsazuloeta			

HERNANI	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
MARTINDEGI			
Añua			
Martindegi (Toloxane)			
Txandrenea			
AKERREGI			
Ariztegi			
Erratzu			
Orkolaga			
EPELE			
Añuaberri			
EREÑOTZU			
Akola			
Alkatxurain			
Txilibita			
Latse			
Izenderbekoa			

DONOSTIA	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
AMARA			
Muntogorri			
Garratxene			
Erbitegi			
Erbitegi-etxeberri			
Basozabal			
Okondotegi			
Goiatzerribera			
Goiatztxiki			
Balandegi			
Billandegibea			
ALTZA			
Irasmoenegoia			
Amoreder			
Pelegriñene			
Isabeletxe			
Antondegi			
Aingerubea (Angelubea)			
Elenategi-Berri			
Elenategi			
Marijuandegigoia			
Zapirainzar			
LANDARBASO			
Astabizkar			
Landarbaso			
Larratz			

IKASTOLAN

ZIZARRA EGITEN

lazko aldizkariaren bideari jarraituz, aurten Lehen Hezkuntzako txikienek, hau da, 1. eta 2 mailakoek, eta Haur Hezkuntzako handienek, 5 urtekoek, ikasturte honetako lehenengo hiruhilekoan egindako lanaren berri eman nahi dizuegu. Oso bertakoa den langintzan aritu ziren.

Ea zer kontatzen diguten.

Lehenengo galdera:

Zer da ZIZARRA? Zer dakite umeeek zizarrari buruz?


Ikastolako haurrak galdera horri erantzun nahian. Hona 5 urteko gelakoek izandako elkarrizketa:

• Norbaitek ba al daki zer den zizarra?

- Sagarra txikitzen duzunean ur hori da zizarra. Sagardoa egiten da zizarrarekin. (aimar)
- Kupela batean sartzen duzu zizarra eta hilabete batzuk itxoin eta sagardoa bihurtzen da. (aimar)
- Bai, hartzen dute makil bat eta hasten dira sagarra zapaltzen hanka hutsik. Makilan daukate traste bat egurrezkoa eta horrekin sagarra txikitzen dute. (aimar)
- Ah! Mendira joan ginela. Makil potoloekin matxakatu genituen sagarrak. Makilak asko pisatzen zuen. (aitana)
- Eta kiskiarekin sagarrak hartu zenituzten. Aurrean dauka punta zorrotza (aitana)

- Sagar txarrak lurrera bota zituzten, belarretara. (aimar)
- Eta eman zuten mosto txikia. Hori da zizarra (aitana)
- Ez, mostoa da gauza bat eta zizarra beste gauza bat. (aimar)

- Mostoa dator botilan eta zizarra sagarretik (aimar)
- Baina mostoa ere sagarrarekin egiten da (aitana)
- Sagardoak alkohola dauka eta ezin dugu edan baina mostoak ez. (aitana)
- Ni joan nintzen sagardotegira eta uste nuen mostoa zela baina sagardoa zen. (xabier)



2. Zalantzak argitzen.

Hainbat puntu guztiz argitu gabe gelditu dira oraindik, eta behin eta berriz azaltzen direnak azalpenetan:

- Zizarrak alkohola du/ ez du.
- Zizarrarekin sagardoa egin daiteke / ezin da sagardorik egin
- Zukua / mostoa. Berdin du?
- Zer da toleara? Eta matxaka? Eta prentsa?

Hona beste hainbat erantzun:

- **Zer da toleara?**
- Ematen diozu bueltaka palanka bati eta saga rra txikitzen da (beñat)
- (denak ados)
- **Zer da matxaka?**
- Tolaren handia, tornillo haundi bat daukana. Tornilo haundi horrek buelta ematen du eta sagarra gehiago txikitzen da (aimar).
- (denak ados)
- **Zer da prentsa?**
- (ez dakite)
- Mostoa-zizarraren arteko desberdintasunak:
- Mostoa da berdexkagoa eta zizarra marroixka goa (aimar)
- Mostoa berdexkagoa da alkoholik ez daukala ko (aitana)
- Kupel txiki batzuetan sartzen dute 5 minutu eta gero ateratzen dute mostoa bihurtuta. Zizarra lehenengo tolar haundi batean sartzen dute eta dago tranpa bat. Zizarra jeixten da kaja borobil batera, itxidurarekin eta gero basora pasatzen da (aimar).

3. Goazen zizarra egitera. Zenbat, ordea??



4. Azkenean lanera!!!



A ze festa!

Denak lan eta lan, laguntza pixka batekin betiere. Eskerrik asko IGOR IPARRAGIRRERI, behar zituzten tresnak utzi, ekarri eta zizarra egiten laguntzeagatik.

1660. URTEAN INDEPENDENTZIA LORTU GENUEN

IAZ 350 URTE ASTIGARRAGA HERRI INDEPENDIENTE BIHURTU ZELA

ASTIGARRAGAK BERE HISTORIAN IZAN DITUEN TITULUAK:

Herriska. (Aldea).

Lurra eta Unibertsitate. (Tierra y Universidad).

Herria. (Noble y Leal Villa de...) 1660. urtetik aurrera.

Auzo. (Distrito, Barrio). 1943tik 1987ra.

1987tik aurrera, HERRIA?

Miel Joxe Astarbe

Aspaldikoa zen Astigarraga herriska, Santio auzora murriztuta, antigoaletik Aiztondoko Alkatetza Nagusian parte hartu zuen, LURRA eta UNIBERTSITATE deiturapean, babes bila joan zelarik iskanbila eta zalapartetik libratu nahian. Alkatetza honen barruan, Asteasu, Larraul, Sorabila eta Urnieta zeuden Astigarraga elkartu zitzaizenean. Asteasu zen Alkatetza honen buru. MURGIA, ERGOBIA eta MURGIako jaunen manupeko gainontzeko lurraldeak, hau da: Mendiola baserria eta ingurukoak hortik kanpo gelditu ziren.

Baina, hemen ere ez ziren gustora aurkitzen gure astigarrak. Alde batetik, urruti xamar geratzen zitzairen Asteasu, eta bestetik, ez zuten beraiek nahi adinako babesa lortzen alkatetza hartatik. Hortik aparte ekonomikoki ere ez zitzairen kontuak ateratzen. Gauzak horrela, Astigarragak independentzia lortu nahi zuen. Haziendaren Kontseilu Gorenari eskatuta eta zilarrezko 2000 dukaten truke, 1660ko urtarilaren 26an Madrilén luzatua izan zen.

Kantitate hori biltzeko, Astigarragako Kontseju, Justizia eta Erregimenduak, 1659ko abenduaren 30ean, 1300 dukatetako azpa fundatzea beharrezkoa suertatu zen, Joanes de Zamora, bertako auzokoaren alde, urteko 65 dukatetako korrituak emanez, 38 etxe hipotekatu zituztelarik (Kontzejuaren ondasun-mankomunitate gisa): "Alorre", "Alegrina", "Araneder", "Arguindegui", "Arrozpide", "Arrozpidenea", "Artola", "Barrenechea", "Bidaburu", "Bostirietaz", "Camio", "Chominenea", "Echeandi", "Echeverria", "Ezquerranea", "Eguzquiza", "Gaztelu", "Goicoechea", "Gravelin", "Guardia", "Herrementaldegui", "Illegorriarena", "Ipinza", "Iriarte", "Laplaza", "Larrabide", "Larrachaga", "Lizardi", "Marigaranea", "Maricuen", "Moco", "Olabide", "Oyalume", "Oyarbide", "Plazaetxea", "Recalde", "Trascarena" eta "Zabala", eta berauen ereintza-lur, mortu, sagardi, gaztainadi, mendi, uzta, errenta eta probetxamendu guztiak ere bai.

Ikusten dugun bezala baserri guztiak Ermaña-mendi¹ aldekoak ziren. Mendiola eta inguruko baserririk ez zen sartu Murgia herriskakoak zirelako eta ez zutelako Astigarragarekin zerikusirik. Hala ere hurrengo urteetan Murgia herriska Astigarragako udalerrian integratu zen. Murgia bera eta Ergobia 1840. urtean integratu ziren Astigarragako Udalerrian.

Independentzia galdu zuen tarte bat izan zuen bere historian: 1943ko urriaren 17tik 1987ko ekainaren 30 arte. Hau da, 44 urte eskas. Tarte tikia ... edo handia bere independentzia galduta edukitzeko. ■

¹ Kristautasuna Astigarragan sartu zen garaian (XI, XII. mendean), Santiomendi izena ezarri zion elizak. Ordurarte Ermaña-mendi izenarekin deitzen zitzaion.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA.

- VV.AA. Astigarragako Gidaliburua. (Natura eta Giza lorratza). Aranzadi Zientzi Elkarteak: Donostia.1990ko iraila. 72-73 orr.
- Gipuzkoako artxibo orokorra. Zenbait dokumentu idatz-orri.

GIZON PROBA ASTIGARRAGAKO PLAZAN

Astigarragako plazan, herriko gazte koadrila batek aparteko marka egindako 69 urteurrena beteko da aurten. Gizon proba hori, probalari gazteek eraman zuten aurre-ra, inongo abereen laguntzarik gabe eta 1.500 kiloko harria arrastatuz. Gaur egun ez dago plazan harri hori, bi pusketan hautsi egin baitzen berarekin lanean ari ziren batean.

Herri kirol guztietan gertatzen den moduan, izugarritzko indar fisiko eta erresistentzia handia dira beharrezko, plaza behin eta berriro zeharkatzeko. Urte asko pasa arren, Joxe Ollokiegik ondo gogoratzen du nola gertatu zen guztia eta berak dioenez, garai hartan gose ederra pasatzen zuten!

Hemezortzi eta hogeitaz hamar mutil gazte biltzen zituzten herriko plazan, soldaduskara joan aurretik instrukzioa ikastera. Kakoneko bi anaia, Xoleneko eta Bordatxoko beste bina, Bordako bat, Lizardiko bat, Latxakoa eta plazako beste bat (haietako hiru bizi dira

oraindik). Bertan biltzen zirelarik, harriarekin jolasen ibiltzen ziren denbora pasa eta hori ikusita apustulariren batek egin zuen apustua.

Harria ez zen oraingoak bezalakoa, buelta osoan zeukan heldu lekua. Bi mutil aurrean, bi atzetik eta besteak erdian, burdinari nolabait eta ahal zen moduan helduz. Goizean egin zuten lana gazteek, ordu erdian 31 plaza bete zituzten. Arratsaldean etorri ziren kanpotik hiru mutil behi batekin eta sekulako

indarrekin hasi arren, segituan bukatu zuten bost minututan hogeitaz plaza eginez. Hori egin eta gero behia lehertuta geratu zen, itota eta bertan behera utzi egin behar izan zuten apustua.

Herriko gazte hauek errez eramaten zuten

harria, plazak ertzetan dituen zintzen gainetik zeharka eramanez. Izan ziren berriro beraien aurka saiatu zirenak, bai Goierritik bai Donostiatik etorritako taldeak, baina ezin izan zuten marka hobetu. Ez du geroztik inork lan hori burutu.

Harria erditik eramatera behartu



Partaideak: MARTIN ETA JOXE OLLOKIEGI, JUANITO ETA GAXPAR ZABALEGI, ANTONIO BERAŠATEGI, JOXE MARI OLLOKIEGI, AGUSTIN ETA JOXE ANTONIO ZULAIKA, BIXENTE IRASTORZA ETA JOXE ALDANONDO.

zituzten baina hala ere aisa arrastatu zuten, inongo arazorik gabe.

Herriko jendea haserre geratu zen, diruak galdu egin baitzituzten. Apustulariak jakiten dute berak nola atera irabazten beti. Mutilei hamar duro eman zizkieten bakoitzari eta hortxe akabo irabaziak. Joxeren irudipena da oraingo aurrerapenekin, arnesak eta, orduko koadrilak airean eramango luketela edozein harri. Hori duk sasoi!

ROXARITO ZABALEGI



Magisteritza ikasi arren beti izan du Alberto Arizkorretak kameraren zaletasuna. Super 8n grabatzen zuen gaztetan. Kameran hasi zen lanean ETBn, ondoren bideo mixera erabiltzen ikasi zuen eta gaur egun, bere programaren zuzendari izateaz gain, errealizatzailea da.

ALBERTO ARIZKORRETA

Ekainean Kroaziako Turismo Bulego Nagusiak banatzen duen URREZKO LUMAren bigarren saria lortu du Alberto Arizkorretak Euskal Telebistan zuzentzen duen **CHILOE** saioak. BBCren atzetik, eta AEBetako, Japoniako eta Europako hainbat telebista katek egin-dako 40 saioen aurretik geratu da **CHILOE**. Hamar urte badira **CHILOE**n hasi zenetik.

Ramon Santxez

.- Talde handia al zarete **CHILOE**n?

Hiru gara, kamera, gidolari aurkezlea eta ni. Ni zuzendaria naiz, produktore ejekutiboa, denetik egin behar izaten dut, eta telebistaren azpiegituraz baliatzen gara baina lan taldea berez hiruk bakarrik osatzen dugu.

.- **CHILOE**ko dokumentalak egiten dituzuenean zer erakutsi nahi izaten duzue?

Ikusle bakoitzak bere nortasuna du eta helburu jakin bat bidaiatzen duenean. Esaterako Amsterdamera egin dugu azken bidaia, eta ez dugu ez auzo gorririk ez coffe shop-ik grabatu. Han giria besterik ez dago, eta Amsterdamgo biztanleek ez dute egunero peta bat erretzen. Askotan tximino modura sentitzen dira zoo batean. Amsterdamek beste gauza asko ditu erakusteko, eta esaterako frasieraz idazten duen poeta

batekin hitz egin dugu. Herbehereetako hizkuntza minorizatua da frasiera.

.- Hainbeste denboran mundu guztia zeharkatuko zenuten?

Dena Afrika beltza izan ezik, ez dutelako dirurik gu eramateko. Bidaiak koprodukzio modura lortzen ditugu lurralde bakoitzeko enbaxada, turismo bulego edo bertako agentziekin negoziatuta. Beraiek ordaintzen digute bidaia eta egonaldia, telebistaren aurrekontua gure soldata besterik ez baita.

.- Aurretik Doctor Livinston saioa egin zenuen, hau ere bidaiei buruzkoa ...

... bai, eta hau ere ETBren barne ekoizpena zen. Gaur egun **CHILOE** da ia ia ETBn geratzen den barne ekoizpen bakarra.

.- Barne ekoizpen gehiago izan beharko al luke ETBk?

Badugu ondo prestatuta dagoen jendea, eta bitartekoak ere bai, baina telebista garestia da, eta ETBk garbi izan du hasieratik kanpoko enpresek etorri behar zutela programaziora, egiturak ez zuela izan behar TVErena bezalakoa. Baina EITB euskara indartzeko sortu zen, euskararen normalkuntzaren bidea jorratzeko, hor agian ahalegin handiagoa egin lezake. Nik oso ziklo ona harrapatu nuen telebistan: Jose Luis Morenoren lan egin nuen, telebista oso ondo ezagutzen duen profesionala da, Rifi-Rafe ere guk jarri genuen martxan, eta produktu eta formatu hori beste telebistei saldu genien. Madrilera joaten nintzen Rifi-Rafe egitera, hori izan zen hemen puntako momentua, gero jeitsiera etorri zen, programa berriak egiteko ausardia galdu zuen ETBk ... esaten dute telebistan hamar saio egin behar direla bi on ateratzeko. Nik ehundik gora programa eta saio berezi ekoitzi ditut, eta hor denetik izan da.

.- EITBri buruz kritika asko entzun ditugu zuzendaritzan aldaketa gertatu zenetik. Nola ikusten duzu EITBk gizarteari eskaintzen dion produktua?

Irratia ondo ikusten dut eta internet oso ondo. Telebista aldiz ahul. Ez dakit, agian kanal tematikoak indartu beharko lirake. ETB1 telebista generalista al da? ETB2 bai, eta bere konpetentzia T5 eta beste kateak dira. Haurrek ikusten dute ETB euskaraz. ETB3k marrazki bizidunen kanal tematiko bihurtuta ondo funtzionatu du, helduek ere ikusten dute ETB1, baina 15-25 urte bitarteko gazteak galdu egin ditugu, beharbada internetera jotzen dutelako. Telebista gehiago behar dugu euskaraz.

.- Barne ekoizpenaz esan duzunaren haritik, gure herri-ikuspegitik egindako gaiak falta direla esan nahi duzu?

Neurri batean bai. Garai batean esaten zuten ETB baserri elektronikoa zela, txistulariak eta tritikitixak tartea zutenean, eta gaur aldiz ez dago musika programarik. Beharrezkoa da? Adituek diote inork ez dituela ikusten baina nere ustez telebista publiko modura, marko ekonomiko finko batean gure musika ezagutarazi behar dugu, Euskalerrian egiten den era guztietako musika, eta gure artistak.

.- Zerorrek jarri didazu galdera. Publiko izateak zertara behartu beharko luke telebista?

Diru kontutan zorrotza izatera, eskaintza zabala egitera, informazioa eta iritzia bereiztera, publikoa bai baina ez gobernuarena, beste komunikabideek ez duten ikuspegi zabaleko saioak egitera, sentsibiltate guztiei leku egitera, pedagogia albo batera utzi eta ikusleek zer nahi duten pentsatuz lan egitera, gure hizkuntza eta kultura zabaltzera eta gure nortasuna harro zabaltzera, baina beti ere besteei zerbait eskai-



ni nahirik. CHILOE Katalunian ikusten dute katalanek asko eskertzen dutelako CHILOEk nortasun propioa izatea.

.- Munduko hainbeste bazter ezagututa, ba al duzu aholkurik alkatetza hartu berri duen gobernu taldearentzat?

Aholkurik ez, marroi galanta dute eta animo guztia beharko dute, baina nik zer ikusi dudan? Astigarragak badu oraindik herri txikiaren nortasuna eta gure identitatea hor dago. Frantzia, Alemanian, Herbehereetan, Finlandian, Norvegian, Suitzan ... urbanismo zaharra babesten dute. Zurichen pentsa zenbat diru duten, munduko kalerik garestiena bertan dago, baina harrizko kaleak berritzen dituzte nahiz deserosoak izan, etxe zaharrak zaintzen dituzte, egurrezkoak, okertuak ... berriak egiten dituzte, eta horretarako dirulaguntzak daude. Etxe horiek balio historiko, urbano eta kulturala dute, gure nortasuna gure hirietan eta herrietan dago eta biztanleek harremana aldatzen dute herriaren egituraren arabera. Arkitektoak etxe bat era batera edo bestera egitea pentsatzen duenean ze espazio sortuko duen pentsatzen du, eta jendeak hor zer harreman izango duen. Astigarragan Plazarekin gertatu dena oso penagarria da, Migeltxon eta Apeztegin zeuden petrilak galdu ditugu, Kale Nagusian oso gutxi dira gertatzen diren etxe zaharrak. Oraindik badaude altxorrak Astigarragan, Errekalden, Santiago Mendin, herrian banaka etxe batzuk, zaindu egin beharko genuke.

.- Astigarragarren herri nortasunaren kezka ez da oraingoa ...

Ez, orain urte batzuk super 8-n Astigarragari buruzko pelikula bat egin nuen, Astigarrek ordainduta. Pelikula hori galduta dago, baina gogoan dut orduko kezkak eta oraingoak antzekoak zirela. Mila eta bosetehun biztanle inguru izango zituen orduan Astigarragak eta kezkatuta ginen Savateren egingo zuten etxearengatik, Astigarragatik kanpoko 400 bizilagun etorriko zirelako, lehendabiziko makroproiektua izan zen. Shock handia izan zen. Astigarragako hiritzintzarekin kezkatuta ginen, zaborteia nola zegoen grabatu genuen, Mendiluze okindegia, Zapiain sagardotegia, xextogintza ere bai. Astigarragako festetan bizpahiru aldiz eman zuten egunero. ■

Gogoan dut lehenbiziko egun hura. Amak dantzan *apuntatu* ninduela esan zidan. Udazken arratsalde bat zen. Iluna, erabat. Garai hartan monjen eskola zeneko patioa gazte eta haurrez, dantzari eta etorkizuneko kimuez, beteta zegoen. Gizon bizardun bat azaldu zen. Nire adineko mutil guztiak (neskak aparte) hartu eta patioaren bazter batera eraman gintuen. Gizon hura Joxean Alberdi *Patás* zen, nire lehenbiziko dantza maisua. Hark sartu zidan barnean harra.

Pare bat urte pasa ziren. Bagenuen nolabaiteko *pulamentua*. Hurrengo taldera pasa ginen. Kultur Etxe estreinatu berrira. Han irakasle berria geneukan zain. Hau ere bizarduna. Ezaguna genuen Martin Ormazabal. Noizbehinka *Patasekin* egiten genituen entseguetara etorri ohi zen. Beldur pixka bat ere bagenion. Martin gizon serioa zen lanean. Dantzan zer esanik ez. Hari esker ikasi nuen dantza-ren oinarria: taula gainean egoten, arropak janzten eta hau guz-tiaren gainetik, dantzatzen.

Dantza Maisu

23 urte dantzan.

Urtzi Leonet Santa Cruz

Gogoan dut berak duela urte batzuk kontatu zidan pasadizo bat. Gure maisua zela Antiguoko *dantzari-txiki* egun batean gertatua. Guk Oñatiko dantzak egin behar genituen, eta beste taldeetako maisu haien artean esan zuenean, ez omen zuten oso kontutan hartu. Luze eta konplikatuegiak guretzat, non-bait. Gure emanaldiaren ostean, maisu haietako bat gerturatu eta ezer esan gabe, bostekoa eman omen zion. Atera kontuak!

Helduen talderako trantsizioan, hamabi-hemezortzi urte bitarte horretan, Bea Lasagabasterrek neskekin dantzatzen irakatsi zidan; sueltoan zein taldean. Iker Pagolak dantzari batek izan beharreko *elegantzia*. Hur Astarbek lanerako behar den *gogoa*. Unai Urbizuk dantzariaren fintasuna, *detallismoa*.

Eta pixkanaka, iritsi zen ur haundiagoetara bidaiatzeko garaia: Añorgako urteak. Hemen arrapaladan, bera bezala, Jokin Otamendi aipatu beharra daukat. Aurretik aipaturiko guzti hori landu, hobetu eta zabaltzeaz gain, dantzari batek behar duen gauzarik garrantzitsuenaren balioa irakatsi zidan: dantzarekin eta dantzatuaz *gozatzea*. Urteak pasa ez balira bezala, oraindik ere horretantxe dihardu: Euskal Herrian zehar jendea gozarazten.

Nik ere dantzari gisa esperientzia gozo ugari bizi izan ditut, baina zalantzarik gabe denetan hunkigarriena 2009. urteko Astigarragako jaien atariko ekitaldiaren ondoren izan zen. Xuberoako maskarada dantzatu ostean, behin argazki saioa amaituta, Martin gerturatu zen niregana. Ezer esan gabe, bostekoa eman zidan.

Orain 2011. urteko urtarrilaren 12a da. Petrítegi sagardotegiko aldagelan nago, alpargata txuri-gorriak lotzen. Txotx denboraldiaren irekieran dantzatuko dudan bigarren aldia da. Hur Astarbe, Iker Pagola eta Unai Urbizuren erreleboa. 29 urte dauzkat, eta orain ni naiz etorkizuneko kimuen *maisua bizarduna*. ■

Burutazioak grazia egin dit.



Argazkia:
JOSEBA ALTAMIRA (2010)



Astigarragako JAIK 2011

Uztailaren 22a, ostirala

- 12:00 **TXUPINAZO TXIKIA** Foru plazan.
- 12:00 Musika Eskolako ikasleen
KALEJIRA.
- 14:00 **HAURRENTZAKO BAZKARIA,**
Foru plazan.
- 16:00 **HAURRENTZAKO JOLASAK,**
Foru plazan.
- 17:00 **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA eta**
TXOKOLATE JANA, Foru plazan.

- 19:00 **TXALAPARTARIAK, PREGOIA ETA**
TXUPINAZOA udaletxeko balkoitik.
- 19:30 **AKELARREA**ren kalejira.
- 20:30 **TXOSNAKO** karparen irekiera,
Tomas Alba kalean.
- 23:00 **MUSIKA KALEJIRA.**
- 23:30 **KONTZERTUA** txosna-gunean Gazte
Asanbladak antolatua.



Uztailaren 23a, larunbata

- 10:00 **3x3 SASKIBALOI** txapelketa
kiroldegian.
- 12:00 **ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALE-**
JIRA txistulariek lagunduta.
- 14:30 **BETIZU BAZKARIA** Foru plazan.
- 16:30 **HAURRENTZAKO JOKOAK** Ikastolako
atarian.
- 17:00 **ASTIGARRAGAKO**
IX. HERRI KROSA.
- 17:00 **PALA ESTA ESKU-PILOTA EGOKI-**
TUAREN erakustaldia pilotalekuan.

- 18:30 **TXARANGA**
- 18:30 **ESKU-PILOTA JAIALDIA**
pilotalekuan.
- 19:00 **SOKAMUTURRA** ikastola atarian.
- 21:00 **DISKOTEKA** J. Barandiaran plazan.
- 23:00 **MUSIKA-IKUSKIZUNA**
J. Barandiaran plazan.
- 23:00 **KONTZERTUA** txosna-gunean Gazte
Asanbladak antolatuta.
- 00:00 **DISKOTEKA** J. Barandiaran plazan.

Uztailaren 24a, igandea

11:30	HAUR ETA GAZTETXOENTXAKO PARKEA Foru plazan.
12:00	TXARANGA.
13:00	TRIKIPOTEOA Gazte Asanbaldak antolatuta.
14:30	GAZTE-BAZKARIA txosna-gunean.
17:00	TXARANGA.
16:30	KOADRILLEN ARTEKO JOKOAK txosna-gunean.

17:00	HAUR ETA GAZTETXOENTXAKO PARKEA Foru plazan.
18:00	BINGOA erretiratuen egoitzan.
20:00	KALE ANTZERKIA: Kale Nagusia, erritaruen egoitzaren aurrean.
23:30	KONTZERTUA J. Barandiaran plazan.
23:30	Askagintzaren alkoholimetroa Tomas Alba kalean.
00:00	KANPAI-ERREPIKA ermitan.



Uztailaren 25a, astelehena

07:00	AULKI JOKOA-TXOKOLATE-JANA Foru plazan.
09:30	TXISTULARIEN DIANA.
11:00	HAURRENTZAKO TXIRRINDULARITZA PROBA: Arrobitxulo kalean.
11:00	MEZA NAGUSIA ermitan.
12:30	KARRIKAN KUKAI dantza-taldearen ikuskizuna J. Barandiaran plazan.
18:00	ASTIGAR taldearen DANTZA-ERAKUSTALDIA pilotalekuan.
18:00	KALEKO MUSIKA.

19:00	BERTSO SAIOA txosna-gunean.
19:00	SOKAMUTURRA Ikastolako atarian.
20:00	KRESALA taldearen musika emanaldia J. Barandiaran plazan.
23:00	ZEZENSUZKOA
23:00	KRESALA taldearen musika emanaldia J. Barandiaran plazan.
23:45	LARRAIN-DANTZA HERRIKOIA Foru plazatik abiatuta.
01:00	JOKOAK eta KARAOKEA txosna-gunean.

Uztailaren 26a, asteartea

- 10:00 ITURENGO JOALDUNAK.**
- 11:00 Herriko TRIKITILARI GAZTEEN KALEJIRA.**
- 11:00 BASERRIKO LANGINTZEN ARTISAUEN ERAKUSKETA:** Goiara-sar-deska, kaikuak, artillea, zintzarriak, senda-belarrak...
- 11:30 SAGARDO DASTAKETA**
Foru plazan.
- 12:00 Aitor MENDILUZE eta Jon MAIA bertsolarien saioa.**
- 12:00 IDI-DEMA:** Orioko Iñaki OLIDEN eta Aizarnazabalgo MEDITXIKI idijabeen idipareak elkarren kontra.
1.700 kiloko harriaz, Foru plazan.
- 14:30 KANTU-BAZKARIA** txosna-gunean.
Herriko bazkaria Goiko Iturri jatetxean.
- 18:00 HERRI KIROL JAIALDIA,** Foru plazan.
* Herriko baserritar helduen eta herriko gazteen arteko desafioa baserrigintzaz.
* Herriko bi taldeen arteko uztarri motzeko idi apustua.
- 18:30 CIRC PANIC** zirko ikuskizuna
Apeztegi plazan.
- 19:30 Herriko TRIKITILARI GAZTEEN erromeria**
- 20:00 HEGALUZE JATEA** Pilotari kalean.
- 23:00 LOS FUNEBRES SU KALEJIRA**
abiapuntua.
- 01:30 JAIEI AGURRA** txosna gunean Gazte Asanbladak antolatua.



Pastain argazkiak

JUVENIL MUNDARRO PETRITEGI TXAPELDUN



Argazkiak: ADOLFO

El equipo empezó la liga de primera juvenil en el mes de septiembre jugando una primera fase en un grupo de 7 equipos a doble vuelta, donde se clasificaban los 2 primeros para la fase final. El equipo terminó en primera posición con 31 puntos, 38 goles a favor y 9 en contra.

La segunda fase comenzó en el mes de enero en un grupo de 10 equipos a doble vuelta también, donde los 2 primeros ascendían matemáticamente a Juvenil de Honor; era un grupo complicado donde estaban equipos de la talla del Lengokoak-Tolosa-Kostkas-Añorga etc, pero donde el Mundarro Petritegi hizo gala de esa regularidad que ha tenido toda la temporada, basada en una buena defensa y en una gran facilidad para materializar las ocasiones en gol, **quedando al final en primera posición con 41 puntos, con 53 goles a favor y sólo 17 en contra.**

Una vez conseguido el tan ansiado ascenso a la máxima categoría territorial, **quedaba jugar la final para quedar campeón de Gipuzkoa de la categoría ante el Ikasberri de Azpeitia**, partido jugado en Orio y donde una vez más el equipo demostró la solidez de toda la campaña, **logrando el título al ganar el encuentro por 3 goles a 1.** Por lo tanto la próxima campaña **el Mundarro Petritegi jugará por primera vez en su historia en la máxima categoría territorial de Juvenil de Honor**, donde esperamos que realicen una meritoria campaña, pues hay que tener en cuenta que de los 25 jugadores que componían la plantilla sólo pasan 6, más los jugadores que pasan del cadete, en su conjunto hay un equipo de garantías.

Por último resaltar que dentro de la gran campaña que han realizado tanto jugadores como técnicos, **el máximo goleador con la gran cifra de 27 goles ha sido el astigartarra Oier Gurutzealde** y **el mejor jugador ha sido para otro astigartarra, el portero Eneko Izeta**, que la próxima campaña militará en el equipo preferente.

JUAN MIKEL



ERROTA BASERRIA, Oiartzungo bidean.



Errota


GAZTE JENDEA

Lagun batzuk komentatu ziguten Errota baserrria alokairuan zegoela, eta azaldu ziguten bertan labe bat zegoela. Egun batetik bestera, koadrilako 4 lagun ados jarri eta etxea alokatzea okurritu zitzaigun, helburu argi batekin, bizimodu berri bat hastea, bai ogia egiten, baita beste nekazal inguruko aktibitateak egiten ere.

Asko harritu ginen errota ikusi genuenean. Oso itxura ona zuen, baina urteetan geldirik egon ondoren ez dago funtzionamenduan jartzerik. Gainera errotara iritsi behar luken ura ez da iristen, kanala guztiz itxita baitago. Gure nahietako bat errota martxan jartzea da, bai ogia egiteko, baita jendeari erakusteko ere, baina lan handia dago egiteko.

Ogia egiteko erabiltzen ditugun osagai guztiak naturalak dira. Hasieratik argi genuen ogi ekologikoa egingo genuela, ez genuen nahi gaur egungo ogi konbentzionalaren bidetik jo, izan ere, ogia izatez, osasunerako onuragarria da, baldin eta osagaiak naturalak badira.

Banaketak etxeetara egiten ditugu astean bi egunetan. Bezero finkoak ditugu eta norberak poltsatxo bat uzten du sarreran guk bertan ogia uzteko. Zenbait denda eta tabernetara ere banatzen dugu.



**Gazte jende talde bat bizi da
Errota baserrian, eta bertan ogia egin eta
herrian saltzen dute. Nolatan ideia hori eta
zein modutan egin eta saltzen duten ogia eta
beste zenbait produktu, bere osagaiak ... izan
dira gure galderak. Antolamenduaren ingu-
ruan ere galdetu diegu, nola moldatzen diren
lanerako eta beraien filosofia, bizi moduaren
aurrean zein den.**

UNAI, EKINE, ARITZ ETA ODEI

Zaharra

BIZI MODU BERRIA

Beheko plazan postua ere jarri dugu pare bat aldiz, batez ere ezagutzera emateko. Jendeak oso harre-
ra ona eduki du, baina ez dugu abusatu nahi izan. Gauzak behar bezala egin nahi ditugu; herri-merkatu bat bul-
tzatu nahi dugu Astigarragan, herritarrek bertako produktuak kontsumitzeko aukera izan dezaten.

Beste jatekoak ere egiten ditugu. Sesamozko gailetak, Tez-ko gailetak, madalenak eta intxaurrezko biz-
kotxoak. Hala ere, pixkanaka - pixkanaka produktu berriei hasi nahi dugu. Antolamendua normalean antzekoa
izaten da. Ogia egiten 4 lagun gabilta, 21-26 urte bitartekoak. Bi pertsonak ogia egiten dute, eta beste biak bana-
ketaz arduratzen dira. Eskaerak, diru-kontuak eta antzeko gauzetarako ere beste arduradun bat dugu.

Gure filosofiari buruz, gazteoi etorkizun iluna datorkigula iruditzen zaigu. Ekonomia aldetik
bakarrik ez, balore aldetik ere, izugarrizko krisia dago. Bakoitza bere bidetik doa ondokoari lagundu gabe, eta guk
nahi duguna, elkarren artean aurrera egitea da. Ezin dugu lanaren zain egon, ea enpresen batek kontratatzen
gaituen edo ez itxaroten. Txipa aldatu beharra dugu!

Ahalik eta autosufizienteen izatea da gure helburuetako bat.

BIDE ZAHAR BERRIAK:

errepideak, autobiak eta beste

Urteroko ohiturari heldu diot eta hemen naiz berriro aspaldiko historiak kontatzen. lazkoan argazki zaharren garrantzia aipatzen nuen eta ildo horretatik argazki esanguratsuak lortzeko ahalegina egin dut.

Errepideen inguruko datuak biltzen saiatu naiz, hain zuzen, gaurkotasun handiko gaia baita. Alde batetik, gure eguneroko bizitzan guztiz beharrezkotzat jotzen da errepide onak izatea eta azkar komunikatzeko aukerak edukitzea. Alderdi horretatik esan beharra dago Astigarragak asko irabazi duela azkenaldi honetan, bereziki, Urumeako autobidearekin. Denboraldi luze batean eragin handiko obrak jasan ondoren errepide berria errealitate bihurtu zaigu eta oro har mugikortasunarentzat aurre-rapen nabarmena izan da.



Ergobia.
Errepidearen
inaugurazioa.
1949.
Kutxa Fototeka.
Foto Car funtsa,
Vicente Martín

Autobia berriak hainbat ezaugarri ditu. Lehenik eta behin izen propioa du, GI 41 delakoa, eta Astigarragatik abiatzen bagara Donostiara joateko 2,9 km-ko bidea dugu. Martutene eta Loiola eskuinaldean utziko ditugu eta Zorroagako tuneletik Amara auzoan sartuko gara. Errepide berria laranja kolorekoa da eta oinarritzko sarean dago integratua. Gainera Donostiako bidean bi lotura daude, bata Intxaurrendora eta bestea Ospitaletakoa, GI 40 delakoa, hau ere laranja kolorekoa eta errepideen oinarritzko sarean integratua.

Urumeako autobidearen obrak duela zazpi urte hasi ziren, 2004 urtean eta helburu nagusien artean, bata zen N-1 errepideari alternatiba bat ematea, eta bestea, berriz, Loiola, Martutene, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoaingo herrien arteko trafikoa arintzea eta hobetzea. Guztira 14 km dira autobia osatzen dutenak eta Foru Aldundiak 200 milioiko inbertsioa egin du.

Orain arteko errepide zaharra, GI 131 delakoa, Astigarraga eta Loiola artekoa, hemendik aurrera GI 2137 izango da, berde kolorekoa eta eskualdeko sarean integratuko da.

Errepideen historia interesatzen bazaizue, aurten argitaratu den liburu bat gomendatuko dizuet. Jose Antonio Rodríguez Ranz, andoaindar ikerlariak Gipuzkoako komunikabideen historiaren azken liburua egin du, 1938-2010 urteei dagokiena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik argitaratu den bilduma honek lau ale ditu eta antzinarotik gaur egun arteko garapena aztertzen dute jarraian aipatzen diren liburuetan:

- Marin Paredes, José Antonio.
Izenburua: Gipuzkoako komunikabideen historia. 1. Aintzinaroa eta ertaroa.
- Achón Insausti, José Angel.
Izenburua: Gipuzkoako komunikabideen historia. 2. Aro modernoa (1500-1833)
- Jose Antonio Rodríguez Ranz:
Gipuzkoako komunikabideen historia. 3. 1833-1937.
- Jose Antonio Rodríguez Ranz:
Gipuzkoako komunikabideen historia. 3. 1938-2010.

Astigarraga aldizkari honetan aztertu izan dira Astigarragako errepide zaharrak, batez ere Gipuzkoa osoa zeharkatzen zuen Errege Bidea eta Astigarragara Hernanitik etorri eta Oiartzunera eramaten zuen bidea. Errege Bide honen inguruko kontakizun asko ditugu, bisitariak, lapurretak, diligentzien gorabeherak,... Errepideari esker Astigarraga gune garrantzitsua izan zen, XXI. mendearen hasieran berriro beste errepide nagusi batek zeharkatzen du herria eta denborak esango digu zein diren horren ondorioak.

Errege Bide honen
inguruko kontakizun
asko ditugu, bisitariak,
lapurretak, diligentzien
gora beherak,...

Gatozen orain XX. mendera, 1950 eta 1960ko hamarkadetan euskal gizartean eta gipuzkoarrean aldaketa nabarmenak izan ziren. Adinean

aurreratu xamarrek garenak ondotxo dakigu garai haien berri, baina urteen poderioz gauzak ahaztu egiten dira eta noizean behin ondo dator ezagututakoak gogoraraztea. Denok dakigu urte haietako errepideak eta automobilak ez daukatela gaurkoekin zerikusirik. Datu zehatzak jakin nahian ibilgailu matrikulatuen estatistiketara jo dugu, eta hara ematen diguten ikuspegia: 1. matrikuluak dauden ibilgailueen kopuruari dagokionez, bi ibilgailuetatik bat kotxea da. 2. Kamioi/kotxe ratioa 1 / 2,5 da, hau da, 100 kotxeko 40 kamioi dabilta errepideetan. 3. Distantzia laburretako ibilgailu nagusia motozikleta da.

Kutxaren Fototeka argazki bilduman Astigarragako argazkiak aurkitu ditut: Donostia



Ur-Kirolak taldeko arraunlariei ongi etorria. 1946. Kutxa Fototeka. Foto Car funtsa, Vicente Martín

Astigarragako autobusean doazen Ur-Kirolatarrei ongi etorria eta Ergobian errepidearen inaugurazioko argazkiak.

Garai hartako errepideen egoera ere guztiz diferentea zen, bideak hestuak ziren, bihurgune askotxo izaten zituzten eta asfaltoko batxeak eta zuloak, nahiko normalak izaten ziren. Abiadurari erreparatzen badiogu beste sorpresa bat hartuko dugu baina erraz uler dezakegu egoera hartan ibilgailuen batz bestekoa 40 km orduko izatea. Egunean 300 bat ibilgailu ateratzen ziren errepideetara eta horien artean gurdiak, bizikletak, motozikletak, autobus bakar batzuk, automobilak eta kamioiak. Baten batek gurdiei buruz galdetuko du eta komeni da jakitea Gipuzkoan 1957an 9.863 gurdi zeudela erregistratuak eta gurdi horietako batzuk Astigarragatik Donostiara joaten zirela egunero San Martin eta Bretxako azoketara.

Hurrengo hamarkadetan, hau da 1960-1970ean, Gipuzkoako errepideetako trafikoak gora-kada handia izan zuen, mantenimento gastuak ere igo egin ziren eta ondorioz Foru Aldundia itenbide berriak bilatzen hasiko da, errepideen ibilbide berriak,

autopistak, barianteak, autobiak eta trenbidearen aukerak aztergai izango dira. Gurean, Donostia-Astigarraga-Hernani errepidea zabaldu eta berritua izan zen. Guztira Foru Aldundiak 1.576.686,83 pzta-ko inbertsioa egin zuen errepide honetan. Beste norabidean, Astigarragatik Irungo Bentetarako errepidean ere obrak egin ziren, kasu honetan Aldundiko aurrekontuan 64.117.374 pzta. aipatzen dira.

Astigarragak Gipuzkoako errepide sarean gaur egun duen posizio oso egokia da eta horretaz gain alternatiba berriak ditugu. Alde batetik, bide gorrien sarea egituratzen ari da eta bizikletan mugitzeko aukera dugu. Orain arte G 131 izan dena eta hemendik aurrera GI 2137 izena hartuko duen errepidean trafikoa asko arindu da eta bai errepide horrek edo baita Urumea aldetik, Donostia eta Hernanirako bideak aukera handiak ematen ditu bide gorri bihurtzeko. Bestalde, etorkizunari begira Abiadura Handiko Trenaren geltokia Astigarragan jartzeara aurreikusten da eta nazioarteko geltoki izatea erronka handia izango da herriarentzat baldin eta maiatzaren 22ko hauteskundeen ondorioz aldaketarik sortzen ez bada.

ARANTXA ARZAMENDI

Luís Miñarro presenta

AITA

una película de José M^a de Orbe

SECCIÓN OFICIAL



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

En
Setiembre de 2010, fuimos
pocos los vecinos de Astigarraga que
no nos encontramos en la sala de proyec-
ciones del Kursaal. Una de las películas candidatas a
la Concha de Oro del Festival de Cine Internacional de
San Sebastián, había sido rodada íntegramente en
Astigarraga: los actores y actrices vecinos de la villa, el soni-
do, el de nuestras calles, nuestro coro, nuestra lengua ... todo
un acontecimiento en torno a un pequeño pueblo
de apenas 4000 habitantes.

Pero el verdadero protagonista de la película AITA
es el Palacio de Murgia.

Un Palacio cuyas fachadas son las originales de la Casa-Torre, que,
a raíz de la orden emitida en 1475 por Enrique IV, fue desmochada
dentro de una serie de acciones encaminadas a eliminar el con-
flicto de los Parientes Mayores. Su interior, hasta ahora secreto,
está reconstruido –ya que fue destruido en un incendio
durante la guerra con los franceses- y se añadió la
estructura lateral neogótica con los miradores.

También el diseño del jardín delantero que
data de finales del S. XIX tiene oríge-
nes medievales.

ARTIZAR IGARTZA

EDDIE SAETA presenta AITA con LUÍS PESCADOR MIKEL GOENAGA productor ejecutivo LUÍS MIÑARRO
imagen JIMMY GIMFERRER sonido EVA VALINO ALEJANDRO CASTILLO RICARD CASALS manipulación del 35mm
ANTONI PINENT montaje imagen CRISTÓBAL FERNÁNDEZ colaboración en el guión DANIEL V. VILLAMEDIANA
guión y dirección JOSÉ M^a de ORBE



Tras ver la película Aita y conocer las vicisitudes de su protagonista, una no puede evitar pensar en la obra de Aristi y en el ejercicio que Jose María de Orbe realiza en torno a una casa que poco a poco va desapareciendo en su materialidad física.

Con esta cinta, Jose María de Orbe nos deja un testimonio perpetuo de la materialidad simbólica e imaginaria, la que realmente recoge la vida, de la casa de su padre.

Pero quizá, para conocer algo más de la película, lo mejor es preguntárselo directamente a su autor. Para ello hemos conversado con Jose María de Orbe, quien atentamente ha respondido a nuestras preguntas.



José Mª de Orbe

**¿Es Aita cine vasco, catalán, español, europeo?
¿O simplemente, Aita es cine de Orbe?**

Aita es cine vasco, catalán y español. Sobre todo es cine vasco, no sólo porque está rodada en el País Vasco, sino porque busca cierta esencia de lo vasco. Además, está hablada en castellano y euskara.

Y ¿cómo surge la idea de rodar esta película?

Suelo decir que es por devolverle algo de vida a la casa torre de Murgia, pero en el fondo es por volver a mi niñez, por recuperar la mirada de mi infancia.

Los protagonistas que aparecen se ubican en el límite de la ficción y la realidad, es decir, no sabemos dónde se encuentra el límite entre personaje y persona. ¿Podríamos decir que la realidad supera a la ficción? Pero por otra parte, ¿no hacen falta altas dosis de ficción para que una película pueda parecer una realidad?

Cierto. La realidad por sí misma no representa nada en una película. Hace falta llegar a cierta abstracción para trascender de la realidad. La abstracción da al cineasta la posibilidad de salir del naturalismo que ha encerrado al cine.

Este trabajo preliminar ¿es un modo más directo de buscar la esencia que nos comentaba? ¿Ha encontrado algún indicio de la esencia de lo vasco?

La función de una película es hacer viajar al espectador, no arrojar respuestas o certezas. Yo no encuentro respuestas al rodar una película, si acaso, descubro nuevas preguntas. La esencia de lo vasco es algo inasible, un montón de preguntas que comienzan en un tiempo indefinido y que precisamente por llevar tanto tiempo sin encontrar una respuesta, lo hacen tan misterioso. Tratar de acotar qué es lo vasco es limitarlo y por lo tanto, matarlo. Lo vasco flota en el tiempo y se transmite de generación en generación con un halo mítico. Dejémoslo ahí para que pueda perdurar en generaciones futuras.

¿Hacen falta “subtítulos” para esta obra?

Hay subtítulos para facilitar la comprensión de ciertos diálogos a los que no son euskaldunes. Pero Aita se

puede apreciar sin ninguna clase de subtítulos. Es una obra más visual que hablada. Me importan más los sonidos, las texturas o la forma de moverse de los personajes. Los obtusos no apreciarán Aita por muchos subtítulos que se quieran poner.

¿Cuándo o cómo dio por concluida la película? O dicho de otro modo, ¿las películas se concluyen o se interrumpen?

Las películas se detienen en tiempo determinado para que puedan conquistar otros tiempos. Una vez dado ese paso, es mejor dejarlas ahí. El tiempo ya se ocupa de colocarlas en el lugar que merecen.

Hablemos de su infancia; ¿Qué perfumes, qué sabores, qué sensaciones guarda? Sus padres, hermanos y hermanas... ¿cómo pasaban las tardes de invierno? ¿qué recuerdos de las vacaciones de verano?

Mis inviernos trascurrían en Donosti y mis veranos en Astigarraga. De los veranos guardo un intenso olor a campo, a hierba seca. También guardo la sonoridad del euskera, tan cerrada y misteriosa. El euskera de la gente del pueblo me sonaba a algo ancestral, no como el de ahora, que me suena mas “globalizado”. Recuerdo a un hombre que trabajaba para mi abuelo, se llamaba Iñacio Soldadua y no hablaba nada de castellano. Era una especie de John Wayne de Astigarraga, un tipo fuerte, muy arcaico y con gran dignidad. Me hubiera gustado filmarle.

¿Quizá por eso se decide a rodar en la casa de Murgia, en Astigarraga? ¿Ha podido reconstruir en una nueva dimensión algo de aquel espacio-tiempo?

Nietzsche dijo que “solamente aquel que construye el futuro tiene derecho a juzgar el pasado”. Rodar en Murgia es para mí construir un futuro, no mirar al pasado. Aunque éste esté presente en la película, se trata de una presencia mítica, casi diría que poética. Es consecuencia del viaje interior de la casa como personaje, no un intento de volver a un tiempo pasado. Yo me pregunto ¿son los espacios intemporales? No. Los espacios también son temporales. Eso se ve muy claro en Aita.



PALACIO DE MURGIA

“Casa torre sita en la villa de Astigarraga junto a la Iglesia parroquial. En tiempos remotos fué castillo-fortaleza y los señores de ella caudillos muy principales que mandaban la gente de guerra de Astigarraga con subordinación inmediata a ellos, teniendo, como tenían, veintidos casas tributarias o feudatarias. Pertenecía al grupo de la parcialidad oñacina, entre las veinticuatro casas de Parientes Mayores que existían en Guipúzcoa en el siglo XVI, y a quienes los monarcas reconocían iguales honores que a los ricos hombres de Castilla y Aragón.

Los señores de esta casa han sido patronos perpé-



tuos y diviseros de la Iglesia parroquial de Santa María, con asiento preeminente en ella, la cual fué dotada y fundada a sus expensas, reservándose el derecho de nombrar Vicario, Beneficiados y serora. Esta casa, que de antiguo es conocida por el Palacio casa-fuerte de Murgia, es de construcción de piedra sillería, salvo el lado inmediato a la Iglesia. Sobre la puerta principal, de forma ojival, se ve un escudo de armas que lleva las piezas siguientes: una encina con tres lobos andantes, lampasados de gules, puestos en pal y dos calderas negras colgadas de las ramas y pendientes de cadenas.”¹

JOSÉ M^a DE ORBE KLINGENBERG (Donostia, 1958)

En el año 1985 se gradúa en dirección cinematográfica en el American Film Institute (Los Angeles, USA).

Dirige varios cortometrajes en California: “Lifeguard”, “Jonathan what the hell” y “Neon”.

Escribe el guión “Aquí no paran los trenes” con la intención de realizar un largometraje. No encuentra productor.

Trabaja como realizador de publicidad y funda con el productor Pepo Sol la productora O’Partners. Posteriormente trabaja como director freelancer con otras productoras.

Obtiene varios premios en distintos festivales publicitarios, destacando varios leones de bronce en el festival de Cannes, y otros premios en los festivales de San Sebastián, Fiap, Clio, etc. Obtiene el Gran Premio del festival El Sol 2004, por el spot “Crossroads” de BMW, inspirado en una película experimental del propio realizador.

Guionista del documental “De Chillida a Hokusai” sobre la creación de una escultura por Eduardo Chillida.

Socio fundador de la productora de cine independiente Fresdeval Films, que produce el largometraje “Las horas del día”, premio Fipresci en Cannes 2003.

Alterna sus proyectos cinematográficos con la realización de películas experimentales e instalaciones.

En marzo de 2004 expone en la galería Peironcelly de Madrid su instalación “Ausencias”.

En el año 2007 escribe y dirige el largometraje “La línea recta”, 35mm, color, 90min, que compite en las secciones oficiales de los festivales internacionales de Gijón (Spain) y Bafici (Argentina).

En el año 2008 realiza una serie de instalaciones al aire libre en las Salinas de Menorca (Spain).

En 2008 comienza a trabajar en el largometraje AITA, 35mm, color, 87min, que finaliza a comienzos de 2010.

2010, AITA se presenta en la sección oficial del Festival Internacional de cine de San Sebastián.

Festival Internacional de Cine de la UNAM 2011. México. Puma de Plata. Mejor película

Festival Internacional de Cine de San Sebastián 2010. Concha de Plata. Mejor fotografía

MOROGI, MURGIA Y ASTIGARRAGA

En su tercer libro de Historia Naturalis, Plinio el Viejo da referencias de un oppidum² denominado Morogi en territorio de la tribu de los várdulos.

El historiador Alfonso del Valle de Lersundi, ha conjeturado la hipótesis de que Morogi se ubicaba en

Astigarraga y más concretamente en el barrio de Ergobia, donde desde tiempos inmemoriales ha existido un vado que servía para cruzar el río Urumea.

Con el transcurso de los siglos se establecen dos asentamientos cercanos: La villa de Astigarraga y el

¹ Gaytán de Ayala Artazcoz, Antonio (1934) Parientes mayores de Guipúzcoa: señores del palacio casa-fuerte de Murgia en Astigarraga. Revista Internacional de los Estudios Vascos = Revue Internationale des Etudes Basques (25). pp. 360-384.

² Un lugar elevado, una colina o meseta, cuyas defensas naturales se refuerza para el dominio de tierras aptas para el cultivo o como refugio fortificado.

Señorío de Murgia.

La actual población de Astigarraga parece configurarse en la Edad Media entre los siglos X y XIII como una etapa del Camino Vasco del interior, una de las variaciones del Camino de Santiago. El núcleo de población aparece en el monte Santiagomendi. La conexión de Astigarraga con la Ruta Jacobea no figura en documentación escrita, pero se basa en la tradición local y en evidencias toponímicas y físicas, como el hecho de que Ermañamendi fue rebautizado como Santiagomendi. La ermita de Santiagomendi, situada en la cumbre del monte homónimo, es según la tradición local, la antigua parroquia del pueblo y fue construida en el siglo XIII.

Mientras tanto en la parte baja del valle se forma durante la Edad Media otra entidad política de tipo feudal: el Señorío de Murgia. Los señores de Murgia controlan desde su casa-torre situada en una pequeña colina las fértiles riberas del río Urumea y el estratégico vado de Ergobia.

Durante las luchas banderizas de Oñacinos y Ganboinos, Astigarraga, tras haber roto el contrato

suscrito con los señores de Murgia, buscó refugio en la Alcaldía Mayor de Aiztondo. Pero esta unión de la Alcaldía de Aiztondo y Astigarraga se ve truncada cuando en 1660 deciden separarse tras diversos problemas económicos y de servicio.

A mediados del S. XIX, en 1840, tras finalizar la Primera Guerra Carlista, surge lo que hoy conocemos como el pueblo de Astigarraga: la villa de Astigarraga y el Señorío de Murgia fueron amalgamados por el gobierno liberal en una única entidad local, siendo Murgia absorbida por la villa de Astigarraga. Estas dos entidades eran muy cercanas y sus casas llegaban a entremezclarse. De hecho había menos de 150 metros en línea recta entre el ayuntamiento de Astigarraga y el Palacio de Murgia. En 1845, Astigarraga se constituyó en municipio de acuerdo a la nueva ley municipal.

Pero, ¿se mantuvo desde entonces hasta ahora como municipio? Os recomendamos leer el artículo de nuestro compañero Miel Joxe Astarbe "1660. Urtean Independentzia lortu genuen".

SEÑORÍO DE MURGIA

Los Señores de Murgia tenían su casa-torre en el emplazamiento donde se ubica actualmente el Palacio de Murgia. Desde ahí ejercían su dominio sobre la zona, controlando ferrerías, molinos, montes y especialmente el vado de Ergobia sobre el Urumea, donde cobraban peaje a las mercancías que pasaban.

El primer señor de Murgia del que se tiene constancia es Diego López de Salcedo, que vivió en el siglo XIII. En 1382, la señora de Murgia Navarra Martínez de Oñaz, nieta de don Diego López de Salcedo y los vecinos de Astigarraga suscribieron un contrato por el cual debían de prestar a los señores una serie de servicios y pagar una serie de tributos; a cambio de protección y una serie de derechos que les eran reconocidos por los segundos. Durante las Guerras banderizas de los siglos XIV y XV los Murgia fueron parte del bando oñacino. En este turbulento periodo los señores de Murgia lograron establecer una relación de cierto dominio señorial sobre los vecinos de Astigarraga, pero éstos últimos buscaron refugio en la Alcaldía Mayor de Aiztondo.

Según el cronista Lope García de Salazar la casa de los Murgia fue una de las castigadas por orden de la Hermandad de Guipúzcoa en 1456.

El Señorío de Murgia fue un raro aviso en el ordenamiento político-jurídico de Guipúzcoa desde el siglo XV hasta el siglo XIX. Constituía lo que era denominado un *coto cerrado*³.

Durante la Primera Guerra Carlista (1833-1840) el señor de Murgia y marqués de Valdespina, tuvo un

papel importante dentro del bando carlista como Mariscal de Campo y Ministro de la Guerra del pretendiente don Carlos. El Marqués y señor de Murgia, opuesto al Convenio de Vergara que puso fin a la guerra en 1839, marchó al exilio.

A partir de ahí... quien quiera conocer la historia, que espere al próximo número de nuestra revista. ■

<http://www.euskaraz.net/Hezkuntza/Auzoka/Auzoka104/06>

http://www.euskonews.com/0546zbn/elkar_es.html

http://es.wikipedia.org/wiki/Astigarraga#Se.C3.B1or.C3.ADo_de_Murgu.C3.ADa

<http://www.eddiesaeta.com/aita/>

GAYTÁN DE AYALA ARTAZCOZ, A. (1934) *Parientes mayores de Guipúzcoa: señores del palacio casa-fuerte de Murgia en Astigarraga. Revista Internacional de los Estudios Vascos = Revue Internationale des Etudes Basques* (25). pp. 360-384.

URTEAGA, M. (1992) *Guía Histórico Monumental de Gipuzkoa. Diputación foral de Gipuzkoa*.

Artizar Igartza

³ Una serie de tierras y fincas propiedad de los señores, que no dependían administrativamente de ninguna entidad local, sino que estaban sometidas directamente a la jurisdicción de la Hermandad de la Provincia.

La historia de nuestro pueblo se compone, entre otros, del conjunto de valores artísticos culturales que dan la identidad y sentido a la comunidad en que convivimos. Cada uno de nosotros somos parte de ella y la protección, cuidado y defensa de dichos valores debe significar un esfuerzo compartido. Igualmente, cualquier actuación que agreda este patrimonio será una pérdida irreparable y/o difícil de subsanar y conllevará un perjuicio a nuestros descendientes.

La Casa Ibai-Ondo, es sin duda un parte integrante de nuestro patrimonio y un valor que debemos promulgar, ya que prestigia nuestra propia identidad.



La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco ha inscrito la casa Ibai-Ondo situada en el Paseo del Tranvía nº 4, Astigarraga (Guipúzcoa) como Bien Cultural con la categoría de Monumento en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, gracias a la solicitud de incoación de expediente por parte de la Dirección General de Patrimonio Cultural y el Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

En este edificio se da la circunstancia de que concurren dos grandes artistas, lo que le hace merecedor de una consideración especial desde el punto de vista histórico-artístico. La casa Ibai-Ondo fue construida por el arquitecto donostiarra Pablo Zabalo Ballarin (1891-1961) para que sirviera de taller y vivienda al escultor eibarrés Karlos Elgezua Lasuen (1898-1987) afincado en Astigarraga desde el año 1946, donde se casó con Paquita Garaizabal (hija del Médico Titular de Astigarraga, José Garaizabal). Curiosamente el mismo año en el que el Ayuntamiento de Astigarraga nombra a Karlos Elgezua hijo adoptivo del pueblo (1998), también pone fuera de ordenación este emblemático edificio.


En esta casa trabajó Karlos Elgezua desarrollando su fecunda carrera artística, cuyas obras se conservan en colecciones importantes como la del Museo San Telmo y la de la Diputación. Dos ejemplos característicos son el Busto del pintor Ignacio Zuloaga situado en Plaza Zuloaga de Eibar, y el Busto del bertsolari Kepa Enbeita "Urretxindorra", que preside el salón de plenos del ayuntamiento de Astigarraga.

Lo mismo puede decirse de la figura de Pablo Zabalo Ballarin sobre la que se ha tratado recientemente en el libro publicado por el Colegio Oficial Vasco Navarro de Arquitectos: "Arquitectos en San Sebastián 1880-1930" y que formó parte del grupo de vanguardistas del Movimiento Moderno que contribuyeron al ensanche y evolución de la ciudad de San Sebastián. Pablo Zabalo también es reconocido internacionalmente ya que continuó su obra durante su exilio en Chile debido a la Guerra Civil.


El interés de esta colaboración entre arquitecto y escultor es innegable. Resultado de la misma fue un edificio pensado ex profeso para albergar el taller y la sala de exposiciones de las obras de Karlos Elgezua. Esta colaboración permitió poner en práctica singulares técnicas arquitectónicas para la época que convierten al edificio en una obra de interés en sí misma, con techos altos y grandes ventanales que permitían trabajar al escultor con luz natural. La casa se empezó a construir en 1955 con la colaboración de numerosos Astigarragatarras (canteros, carpinteros...) y se concluyó en 1961. Es una construcción noble, representante del estilo Neo-Vasco.

Con este anuncio tan importante, la familia Pey Ibarbia invita a los astigarragatarras a conocer este edificio que forma parte de nuestra historia. ■

IÑAKI PEY IBARBIA



PABLO ZABALO BALLARIN
Arquitecto



KARLOS ELGEZUA LASUEN
Escultor

Gizartearen eraldaketarekin batera, nola ez, kontsumitzaileen ohitura, kezka eta interesek ere bilakaera interesgarria jasan dute. Gero eta arrunta goa da, pertsona desberdinen arteko elkarriketetan galdera hauek entzutea: Zer jaten dugu? Non eta nola produzitzen da? Osasuntsuak ote dira?



OTARRA

ETA KONTSUMO TALDEAK

Noiz edo noiz, denok galdetu diogu gure buruari, plateraren aurrean daukagun barazki, esne, ezti, ardo, haragi, gazta, fruitu, eta abarren jatorriari buruz.

Azken urteetako eskandalu desberdinen ondorioz, behi eroek, toxinek, etab... nahigabeko konzientzi lana burutu dute eta jende askoren iritzitan, krisi modu desberdin baten aurrean gaude. Aspaldidanik onartutako krisi ekonomikoaren aurretik, krisi alimentario edo elikagaien inguruko krisi garrantzitsu batetan murgilduta gaudela sinisten duten taldeak antolatzen joan dira. Egia esan, fenomeno hau ez da berria, baina bai talde hauen inguruan biltzen ari den jende eta talde kopurua, eta beraien arteko antolaketa maila altua. Jendeak gizarte eredu berri bat bilatu nahi du, alternatiba bat.

Baserriko produktuen etorkizuna salmenta zuzenean eta kalitatezko ekoizpenean oinarritzen

den neurrian, etorkizun oparoagoa aurreikusten zaio-larigi dago.

Elikagaien kalitateari buruzko arduraren inguruan label, denominazio eta bestelakoen garapena eman da. Gainera, ia supermerkatu kate gehienek dute kalitatezko berezko labela, adibidez Eroski-Natur, etab.. non ekoizleari produkzio, eraldaketa baldintza zehatzak inposatzen dizkion, label horren menpe komertzializatu ahal izateko. Institutuzio eta produktoreen aldetik ere, bestelako labelak ere bultzatu dira, esaterako, Eusko Labelaren menpe dau den tomate, babarrun, Gernikako eta Ibarrako piparrak, Euskal Baserriko oilaskoa etab. Ez genuke ahaztu behar, azken hilabeteetan puri-purian dagoen Euskal Sagardoa edo Sagardo Gorenak-en inguruan egon den mugimendu izugarria ere. ENEEK edo Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, elikagai ekologikoen kontrola burutzen duena eta zigilu emaile dena ere ez.

Guzti honi, herritar eta sindikatuek baserritarrenganako interesa gehitzen badiogu, gaur egungo egoeraren irudia argitzen zaigu.

Zer da kontsumo talde bat?

Kontsumo taldea, nekazal produktu jakin batzuk inguruko baserritar bati zuzenean eta elkarlanean erosteko sortzen den taldea da. Oinarritzat, astero edo akordatzeko denbora epean, baserritarrek berak sortutako produktuekin oterra bat prestatzen zaio taldeko partaide bakoitzari, hilean behin baserritarrari ordaintzen zaion kuota baten truke. Oterra garaian garaiko produktuekin osatzen da (fruitu, barazki, esne-esnekiak, ezti,...) eta hileroko kuota aipatutako produktuen arabera da eta partaide bakoitzarentzat berdina.

Kontsumo eredu hau baliogarri da nekazari-tza tradizional edota eredu ekologikorako. Lehenengo ondorioa, kontsumitzaile eta baserritarren arteko harremana sendotzea litzateke, beraien arteko eta produktuenganako konfidantza indartuz eta salmenta zuzena erraztuz. Honek baserritarrari, diru sarrerak ziurtatzen dizkio eta alde zuretik aurrerakotzat hartzen dituen ereduak errazten ditu.

Elkarlana ezinbestekoa da kontsumo antolaketa honetan, bai kudeaketa bai antolaketan, bazkideen arteko asanbladak lan metodologiaren parte garrantzitsua izanik. Beste oinarritako bat, bi zentzutako zuzentasuna, garbitasuna eta gardentasuna da eta ondorio orokor mesedegarri hauek dauzka:

- Bertoko baserritarren jarraipena eta ekoizle berrien inkorporazio edo gehitzea, produkzio lokala bultzatuz.
- Ekoizpen ekologikoa zabaltzea.
- Kontsumitzaileari erosketa prezio arrazoi-garriak, baserritarrari prezio duin eta lekuko ekonomiaren sendotzea ahalbidetzen ditu. Justizia soziala bilatzen da guzti honekin.
- Lurraren emankortasuna eta baserri tradizionalaren biziraupena bermatzen du.
- Herritar edo kaletarrak, baserriko lan eta bizi errealitatera hurbiltzen ditu.
- Merkatal distribuzio korapilatsuek duten garraio, poltsa,... beharrek sortutako kutsadura murrizten dute.
- Paisaia, ingurugiro eta kultura-ohiturak babesten ditu, agroekologian oinarrituz.

- Kontsumitzaile eta ekoizleari elikagaien inguruko kontrola edo subiranotasuna berreskuratzea ahalbidetzen du. Bertoko hazi, landare eta animalia arrazen mantentzea errazten du, aniztasun genetiko eta biologikoaren aldetik horren garrantzitsua dena, inguruari askoz hobeto egokitzen diren heinean.

Gure herrian eta inguruan salmenta zuzen eta kontsumo taldeen adibideak baditugu. Batetik, komertzioz salmenta egiten duten ohiko baserritarrez aparte, Lizardi Baserriko partaide eta Martuteneko Oterra Bioelkartea taldeak egoera "berritzaile" honen eredu garbi eta konkretuak dira.



Kontsumo taldeez berriz, jatorria duela 20 urte Japonian izan daiteke, erabat industrializatutako herrialdean produktu osasungarriak bilatzen zituzten taldeetan. Hemen talde ugari daude Euskal Herri guztian zehar banatuak, Iparralden Hegoalden baino errotuago eta lehenagotik daudelarik. Esate baterako, AMAP Iparralden, Nekasarea Bizkaian eta Baserri taldeen inguruan Gipuzkoan, elkartzen eta antolatzen dira kontsumitzaile taldeak. Nazioarte mailan berriz, aski ezagunak dira, esate baterako Estatu Batuetan CSA Community-supported agriculture egitura barruan dauden talde mordoak.

Mundu mailako mugimendu baten aurrean gaude eta partaide oso dinamikoz osatua. Euskal Herrian batez ere nekazaritza ekologikoaren baitan dauden ekoizleak (Biolur, Ekolur Bizkaia,...), nekazal sindikatuek bultzatu eta lagunduta (EHNE) eta antolatutako herritar kontsumitzaileak osatzen dituzte.

Gaizka Irigoien Goikoetxea

GLORIA IN EXCELSIS

ASTIGARRAGA

El pasado 4 de junio de 2011, en la Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción de Astigarraga se celebró un concierto dividido en tres partes: el silencio reverenciador y los aplausos contenidos de los asistentes marcaron un hito en la historia musical de nuestro pueblo.

Así, en la primera parte, los Coros *Mariaren Bihotza* (Donostia, 1962), dirigido por Saioa Zuaznabar (Astigarraga, 1983), y *Aiztondo Abesbatza* (Astigarraga, 1995), dirigido por Igor Arroyo (Donostia, 1971), interpretaron en solitario obras de O. Di Lasso, Lotti, T.L. de Vitoria, Jenkins, Hassler y Pekiell. En la segunda parte, Josean Pascual demostró su virtuosismo interpretando el Concierto para Órgano HWV 292 de Händel junto a la orquesta *Ad Hoc Ensemble*.

Y finalmente la obra más esperada por los asistentes: el “*Gloria*” RV 589 en Re mayor de Antonio Vivaldi, con las sopranos Miren Urbietta y Marta Velasco como solistas.



Para conocer lo que conlleva la preparación y montaje de una obra con dos coros, orquesta y solistas, discutir sobre la vida musical del pueblo y proyectos culturales como éste, hemos reunido, antes de la actuación, a los directores de los coros y a uno de nuestros referentes culturales en Astigarraga: Miel Joxe Astarbe (Astigarraga, 1945).

Miel Joxe (M.J): *Orain abestuko duzue Vivaldiren “Gloria”... Ez da erreza izango zuzentzeko!*

Saioa (S): (Barrez) Beno, ez dugu guk zuzenduko... Hori Josean Pascualek zuzenduko du.

M.J: *Eta zuen lana, zein da orduan?*

Igor (I): Bakoitzak bere abesbatza prestatu du eta gero elkarrekin egin dugu muntaia. Gure lana “directores asistentes” esaten dena izan da. Vivaldiren “*Gloria*”k orkestra, solistak eta abesbatza batera zuzentzea eskatzen du. Kontuan hartu behar da abesbatzak amateurak direla eta musikoak, solistak eta orkestra

profesionalak. Horregatik kalitaterik hoberena bilatzen saiatzen gara eta bi abesbatza elkartu gara. Dena den, proposamena Saioak egin zidan!!

M.J: *Zelan sortu zen honako ideia?*

S: Beno, gure abesbatzak urtero Aita Sierraren orimenez (Mariaren Bihotza abesbatzaren sortzailea zena) hiru eguneko ziklo bat antolatzen du, eta bururatu zitzaigun “*Gloria*” antolatzea, orduan (Igorri begiratu) zuekin gogoratu nintzen...

I: Eta guk oso pozik onartu genuen proposamena, baina baldintza “txiki” batekin, Astigarragan ere kontzertu bera ematea.

Guretzat erronka bat izan da eta lana haundia egin dugu hau prestatzen. Herrian oso publiko fidela dugu, eta zerbait berezia eta polita eskaini nahi diogu. Azken finean, kontzertu guztiak beti publikoari eskeinita eta gure herrian pentsatuz antolatzen ditugu.

M.J: *Musikarien lana ez da askotan ulertzen ez badago publikorik. Nola hasi zineten Musika munduan?*

S: Ba ni hasi nintzen Astigarragako Musika eskolarekin batera, nik uste det estreinatu nuela.

M.J: *Duela hamazazpi urte, orduan.*

S: Bai juxtu, nik hamar urte nituen eta eskolan esaten zidaten oso belarri ona neukala eta nonbait apuntatu behar nuela. Horregatik entzun genuenean Musika eskola ireki behar zutela han apuntatu nintzen. Piano nuen gusutukoa eta horrela hasi nintzen. Bertan *Alitxurekin* bost urte eman nituen eta kontserbatoriorako prestatu nintzen. Piano ertaineko maila atera nuen eta orain fagotekoa bukatu nahian ari naiz.

“Abesbatza zure instrumentua da eta menperatzen duzunean bakarrik atera ditzaiokezu sentimentuak.”

I: Ni sei urterekin hasi nintzen emakume batekin Solfeo eta gero kontserbatorioan jarraitu nuen. Pianoa, kora-la, harmonia... ikasketak bertan egin nituen ere. Kantuko klaseak Madrilén jaso nituen eta handik bueltan Musikenen aritu nintzen.

M.J: *Abesbatza zuzentzeak zein sentimentu, zein sensazio sortarazten dizue?*

I: Batzutan kriston “malaostia” (barrez). Behar bada gu mugitzen garan mailan nahikoa izaten dugu askotan afinazioa, erritmoak eta zuzenki abesten partituran jartzen duena. Eta sentimentuek oso landuta izan duzunean ateratzerik dute, agian kasu hori kontzertuetan ematen da. Baina ezingo nizuke sentimentu konkretu bat aipatu, zeozer abstraktoa. Abesbatza zure instrumentua da eta menperatzen duzunean bakarrik atera ditzaiokezu sentimentuak.

S: Nire kasua diferentea da, berria naizelako eta askotan gehiegi emozionatzen naiz eta abeslariak barrez hasten dira. Hasieran beldurtua nengoen baina orain pila bat disfrutatzen det.

M.J: *Bukatzen joateko, nola ikusten duzue Astigarragako giro-musikala?*

S: Nik daukadan pena... Astigarragak Musika Bandarik ez izatea.

M.J: *Ez esan hori, ez baitakizu zenbat protestatzen dudan horrekin!!*

S: Musika eskolan nengoela saiatu ginen zeozer egiten.



M.J: *Eta abesbatzan, nola zabilzate jende kopuruarekin?*

I: Ba oso juxtu.

S: Gu ere, hasieran 70 inguru ginen eta gaur egun 30 eskas.

I: Nire ustetan gaur egungo aisialdirako eskeintza askoz handiagoa da, eta asko sakabanatu da. Gure garaietan kultura eta aisialdia oso lotua zegoen, baina egungo haurrek...

S: ...Gehiegi dute, eta batez ere gure haurtzaroan ez genuen zerbait : playstation eta internet.

M.J: *Beno, ez dakit zein izango den konponbidea, baina ziur naiz zuen kontzertua ikusi ondoren askoei abesteko gogoia piztuko zaie...*

Urkiri Salaberria

Kontuz! Hor ditugu eta landare exotiko inbaditzaileak!

Mari Azpiroz eta Leire Oreja
Aranzadi Zientzia Elkarte

Zer dira landare exotikoak?

Landare exotikoak, aloktonoak ere deituak, gurea ez den beste eremu geografiko batetatik eratorriak diren espezieak dira.

Zer ezberdintasun dago landare exotiko eta landare inbaditzaileen artean?

Landare exotikoak gehienetan gizakiaren eraginez barneratuak izan dira. Hauetariko asko naturalizatu egin dira, hau da, habitat ezberdinetan belaunaldi bat baino gehiagotan ugaltzeko gaitasuna dute. Landare exotiko hauetariko batzuk kopuru handian, distantzia eta erritmo nabarmenetan ugaltzeko gai direnean landare inbaditzaileetaz hitz egin genezake.

Nola eragiten dute landare inbaditzaileek Biodibertsitate galeran?

Landare inbaditzaileek ekosistemen funtzionamendu eta egituran zein bertako populazioetan sortzen dituzten inpaktu zuzenetan islatzen da galera hau, hala nola, lehiakortasunean, predazioan, kutsadura genetikoan eta patogenoak barneratzean. Gertaera hauek bertoko populazioen azaleraren eta indibiduen hazkuntza txikitzea, ugal-arrakasta murriztea eta habitaten erabilerak eraldatzea dakarte.

Astigarragan eraldatutako lekuetan nonnahi aurki ditzakegu:



Landareen inbasioa ez da prozesu berria baina azken hamarkadetan perspektiba globaleko arazo bilakatu da. Espezie aloktonoen inbasioa bertako espezieen kontserbaziorako arrisku nabaria da eta munduko biodibertsitatearen galera eragiten duen bigarren mehatxua da habitat galeraren ostean. Nazioarteko merkataritzaren emendioa eta garraio ugaritzea eta kontinente arteko bidaien emendioa izan dira espezie exotikoen barneratzeko bide nagusiak.

Cortaderia selloana. Panpa-lezka.

Jatorria: Hego Amerika.

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua.

Habitata: ezponda eta lur mugituetan nagusitzen den espeziea izan arren azken urteotan habitat naturaletan aurkitu izan da.

Ezaugarriak: Estatu mailan 20 espezie exotiko inbaditzaile kaltegarrienetarikoen artean onartua dago. Infloreszentzia eme bakoitzak 100.000 hazi bideragarri ematen ditu.



Fallopia japonica. Poligono japoniarra, banbu japoniarra.

Jatorria: Asia (Japonia, Korea eta Txina).

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua.

Habitata: hezetasuna behar duen espeziea izanik ibai eta erreka ertzetan agertzen da.

Oharrak: errizoma handiak ditu eta gramo bat baina handiagoko errizoma zatiek landare berria erregeneratzeko ahalmena dute. Behin finkatua hazkuntza oso azkarra du eta ez du beste espezie-rik inguruan hazten uzten.

Buddleja davidii. Lila.

Jatorria: Ekialdeko Asia.

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua.

Habitata: Habitat eraldatuetan oso ugaria da (ezponda eta bide ertzetan). Basatia bihurtu da eta pixkanaka pixkanaka habitat naturaletara zabaltzen hasia da.

Oharrak: hazi bidez barreiatzen da, haize bidez.

Lore bakoitzeko egoera optimoetan 40.000 hazi garatu ditzake. Errepide eta autopistetan, autoek sortzen dituzten turbulentziek bere barreiapena errazten dute.



Robinia pseudoacacia. Sasiarkazia.

Jatorria: Ipar Amerika.

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua eta hazkuntza azkarreko zuhaitza denez egurretarako landatu izan da.

Habitata: ibai ertzeko baso mistoak eta hariztiak ordezkatzen ditu.

Oharrak: Lurzoruko nitrogeno kantitatea handitzea da sortzen duen eragin kaltegarrienetarikoa, habitat naturala eraldatuz. Erlezaintzarako estimatua den landarea da. ■

BERNARDO ALBERRO ANABITARTE (Astigarraga, 1927)

Egun hotza eta euri fina dugu, baina hala ere, Ordiziara hurbildu gara gure artikulua egin ahal izateko. Zorionez, kaleko giroa ez du zerikusirik gure elkarrizketaturen izaerarekin.

Alberro jauna bihotzbera eta sentimendu handiko pertsona da. Bere etxean abegi egiten digu bere emaztearekin batera, Socorro Dominguez (Donostian ezagutu zuen, Santa Zezilia egun batean, ... eta gaur arte. 60 urte elkarrekin!!), goizeko hamaika t'erditan.

Bernardo Alberro Astigarragan (Ergobian, ohartzen digu) jaio zen 1927ko apirilaren 17an, urte hartako Aberri Eguna omen zen.

Bernardo dugu lehenengoa
zazpi anai arreben artean
(besteak, Maria Luisa,
Antonino, Bixenta, Enkarna,
Antonio, eta Joxe Luis),
Antton, bere aitak, Iberdueron
egin zuen lana, eta María
Anabitarte, ama,
Altzakoa zen.

Hamasei urte zituenean, lan-
istripu bat zela eta ikusmena
neurri handian galdu zuen eta
ondorioz esku soinua ikastea
erabaki zuen. Hortik aurrera,
ONCEn lana egiteaz gain,
Braillez sistemarekin solfeo
ikasi eta autodidakta moduan
musika konposaketa eta oler-
kia landu zuen ere bai.
Bere lanen artean kalejirak,
balsak, zortzikoak, martxak,
himnoak, gabon-kantak,
etab... aurki ditzakegu.



**“Edozein hasiera emanaz,
berehala sortzen zait doinu bat!”**

Bernardo Alberro

Has gaitezen, nahi baduzu, zure haur eta gazte garaiarekin.

Ni jaio nintzen Ergobian, Oialume pasalekuan. Gero, gerra hasita, 1937an Astigarragara joan ginen Santusen etxera.

Eskolan, Don Cipriano izan genuen eta gogoan dut zein jipoiak ematen zizkigun. Behin, mutiko batek, Rafaelek “mutur-beltza” deitu zion eta jakin zuenean zer esan nahi zuen... puff!! , a zein nolakoa eman ziona....!!!

Geroago, gazte girotik gogoan dut ibiltzen ginen oso lagunak, Jose Luis Etxezarreta, Patxi “Itxorrade” , Tomás Ezponda eta laurok. Beti sagardotegietako giroan, tokan jolasten... Garai haietan, Astigarragan ia baserri guztietan sagardotegia zegoen, Ermaña zela eta, Santio zela eta, Goikoetxe zela eta, Alorrene, Ilegorrine, Egiluze, Gurutzeta, Moko, Garratxene... jende pilo bat etortzen zen tranbian sagardotegietara.

Nolako ibilbidea egiten zuen tranbiak?

Sei parada Hernanin eta beste sei Astigarragan. Astigarragako lehena, Pagoan, gero Kotxereta, Arrobitxulo, Markesaren parada (hori bakarrik beraientzat zen), Elizalde eta Portutxo. Gero Marijuandegitik sartzen zen eta Donostiako tranbiaren zai geratzen ginen...

Tranbia horretan lana egin izan zenuen, baina...

Herriko beste birekin, Mikel San Sebastian eta Ramon Almandoz, Astigarragako tranbian lanean aritzen nintzen. Behin sutea izan zen kotxerasen eta dena berreraiki egin behar izan genuen. Horrela, hango lanetan ari ginela erori egin nintzen, Arrobitxulon, dena adokinak ziren eta burua txikitu egin nuen, hondarra bezala. Donostiara eramanez ninduten eta hamasei egun koman eman nituen.

Zenbat urterekin gertatu zitzaizun hori?

Hamasei urterekin. Egia esanda mirari bat izan zen. Hiru hilabete oso larri eman nituen eta inork ez zuen uste bizirik aterako nintzenik. Beste batzuk esan zuten entendimendurik gabe geratuko nintzela...

Eta inork ez zuen asmatu...

(Barrez) Ba hemen nago, ezta? Kontua izan zen hortik aurrera, hamazazpi urterekin, ONCEko kupoia saltzen hasi nintzela eta gero eskarmen-tua hartuaz eta lan gogor eginez, apurka-apurka lanean hobetzen hasi, eta Goierriko ONCEko zuzendaritzan aritu nintzen jubilatuta arte.



Zelan hasi zinen musikarekin?

Gaztetik musika oso gustukoa nuen eta istripuaren ondoren esku soinuari denbora asko eskaini nion. Gero, Solfeoa ikasi nuen Braille sistema erabili eta konposaketak egitera ausartu nintzen. Egia esanda, edozein hasiera emanaz berehala sortzen zait doinu bat.... (*momentu horretan, eskatzen digu hiru nota ematea hasiera bezala....proba egiten dugu eta hala da, Alberrok duen erreztasuna doinuak asmatzeko oso handia da!!*)

Laburki

Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zen lehiaketa batean bigarren saria lortu zuen. Geroztik, parte hartutako txapelketetan sari aipagarriak eskuratu zituen.

Konposatzaile eta olerkari honek, Gipuzkoako zenbait irratitan parte hartu zuen, baita hainbat antzeztokitan kantautore gisa ere. Beste askoren artean, (62 obra inguru konposatu ditu) bereak ditugu Astigarragako Ereserkia eta Astigarraga eta Ergobia izeneko kalejirak. Ordizia, Oñati eta Irungo bandek bere zenbait lan jotzen dituzte sarri. Hauen artean, makulu zuriari eskeinitakoa aipa dezakegu.

Zalduondo (Araba) eta Olaberriko (Gipuzkoa) udalek, omenaldiak eskaini dizkiote eta Valentziako Banda Liririk (Espainiako onena) bere domina jarri zion.

URKIRI eta MIEL JOXE



- **1976. urtean Astigar euskal ohitura zale elkarte sortzen da Astigarragan eta badirudi ordura arte ez zegoela joerarik Astigarragako gazte jendea herrian elkartzeko. Zuek hasi zineten oso gazterik talde ezberdinetan parte hartzen eta kultur arloan lanean, ez al da horrela?**

Bai, hala da. Garai haietan ez zegoen kultur eta gizarte mailan ezertxo ere antolatua. Gu baino urte batzuk zaharagoak ziren zenbait gaztek euskal kultura eta ohiturak berreskuratzeko elkarte bat sortzea proposatu ziguten. Eta gure beldur eta lotsa guztiak alde batera utzita, buru belarri ekin genion lanari. Dena egiteko zegoenez gure ekintza arlo guztietara zabaltzea erabaki genuen, hala nola, herriko jaiak antolatu, dantza taldea sortu, euskarazko klaseak, musika ikastaroak, haurren aisialdia, mendi irteerak, argazkilaritza, ikerketa lanak eta abar.

- **Nola eta norekin ikasi zenuen atabala jotzen eta noiz hasi zinen parte hartzen txistularien emanaldi eta ekintzetan? Zenbat urterekin?**

Garai hartan Donostiako dantza talde batekin jarduten zuten herriko 3 txistulari Astigar dantza taldearekin hasi ziren. Miel Joxe Astarbe, Carlos Pascual eta Xabier Urialde atabalari moduan. Xabier Urialdek utzi zuenean ni hasi nintzen beraiekin ikasten. Nire lehenengo agerraldia 1976ko herriko jaietako, jaien hasierako kalejiran izan zen.

- **Herriko txarangan ere parte hartu zenuen, nola izan zen hori? Ez zegoen Astigarragan Musika Eskolarik oraindik garai horretan eta ez zineten musikari kopuru makala ...**

Lehenago esan dudan bezala gure ekintzen artean musika ikastaroak eskaintzen genituen. Bertan Miel Joxe Astarbe maisu aritzen zen. Eta horrela hasi ginen pixkanaka zenbait instrumentu ikasten txaranga bat sortu arte. Esan beharra dago denak herriko gazteak ginela eta gure jarduera nagusia herriko festak alaitzea izaten zen. Goizean goiz hasten ginen eta leher eginda bukatzen genuen, txarangarekin jotzen aritzen ez ginenean jaietako beste ekintzetan parte hartzen genuen. Zenbait herritara ere zabaltu genuen gure musika, hala nola, Baztandarren Biltzarrean, Donostiako Inauterietan, Hernani eta Billabonako jaietan, Zugarramurdiko akelarrean...

- **Ba al dago jarraipenik gaur egun atabalari berriekin? Ikusten al da gaztetxoan artean ikasteko eta jotzeko batere gogorik? Izan al duzu ikasle edo laguntzaileen bat?**

Gaur egun Astigarragan beste eskaintzen artean musika eskola bat ere badugu. Baina gazteek ez dute atabalaren aukera egiten, baizik eta rock taldeetan jotzeko hautua egiten dute. Nire ustez biak uztartu daitezke.

Hasieratik gaur egunera sei bat atabalari izan dira nirekin batera: Xabier Urialde, Kottan Artola, Iker Ruiz (g.b) Joseba Mujika, Unai Alberdi eta Imanol Laburu.

Gaur egun Imanol Laburu dultzaina joleekin aritzen da.

- **Bete dira hortaz 35 urte txistulari eta buru- handiekin festetako lehen egunean jaien hasiera eman duzuela. Urte guzietan hartu al duzu parte bertan?**

Soldadutzako urtea kenduta gaur arte urtero atera izan naiz. Nire asmoa urte askotan ahal izanez gero jotzen jarraitzea, baina gustatuko litzaidake gazteak gurekin aritzea.

- **Beste zerbait esango al zenuke konpartsa horretaz edo atabalari buruz?**

Herriko gazteak animatuko nituzke orain daukagun musika eskolan txistua eta atabala ikastera. Bi instrumentu hauek bai dantza taldearekin edo edozein tokitan jotzeko aukera handia ematen dute.

Mila esker bada Patas, urte guzti hauengatik eta jarraitu aurrera beste askotan.



“Patas” atabaleroa 1980. urtean herrian sortu zen txarangan

Hona hemen partaideak (ezk-esk).

GOIAN: Belen Olaziregi, TXAPAK; Patas, ATABALA; Joseba Garmendia, TROMPETA; Pello Urreaga, TROMPETA; Juantxo Arzallus, SAXOFOIA; Iñaki Arzallus, ESKUSOINUA; Garbiñe San Miguel, KLARINETEA; Isabel Luna (Beltza), KLARINETEA; Juantxo Irigoien, SAXOFOIA.

BEHEAN: Eduardo Gonzalez (Kenedy), BOMBOA, David Goñi, TROMPETA; Mañel Serra, BOMBARDINOA; Joxe Pelipe Santiago Zubillaga (Xubito), ZUZENDARIA; Carlos Martin, TROMPETA; Miel Joxe Astarbe (Beethoven), KLARINETEA.

ROXARITO ZABALEGI

URTEKO HERRI BIZITZAZ



AKELARREA

Urte batzuk pasa dira Akelarre ikuskizuna antolatu gabe, baina iazko jaietan berreskuratu eta parte hartze handiarekin ikusterik izan zen. Gazte jende askok parte hartu zuen arren, bazen adin guztietako sorgin, dantzari eta aktore. Ikusmin izugarria lortu zuen eta ikusle kopurua ere ez zen makala izan, festetako hasiera girotuz.

PREGOILARIA

Aurtengo jaien hasiera-ko pregoilari lanetarako, han eta hemen bere lanengatik saritua izan den Jon Garaño zinegilea izendatu du jai batzordeak. Herrian izan dugu aukera polita berarekin, era lasaian, solasaldian aritzeko, "80 EGUNEAN" bere filma ikusi ondoren. Hurbiltasun eta goxotasunez etorri zitzaigun kultur etxera.



TXOTX GARAIA

Aurpegi oso ezaguna izan da sagardo berriaren aurtengo irudia. Karlos Argiñano bere betiko hitz jario luze eta atseginarekin izan zen sagardoarekin batera egun horretako izarra. Sagarrondoa landatu ondoren sagardo berria dastatu eta erakutsi zuen, lasto koloreko gazi eta gozo den edari "goxo-goxoa".



KORRIKA

Beti izaten da Korrika-ren jarraitzaile asko, baina azkeneko edizioan zail ikusten zen jende asko izatea parte hartzen edo ikusten, ordu txarrean etortzekoa baitzen. Ez zen ba horrela izan, eguerdiko orduak izango balira bezala animatu zen jende asko bai korrika egitera eta bai kaleetan zehar laguntzera, denak txalotuz.



ZELAI BERRIA

Zarkumendegiko futbol zelai berria inauguratu da. Bertan izan zen Alberto Iturralde astigarragatarra, Errealeko bigarren entrenatzaillea, eta berak atera zuen ohorezko sakea. Belar artifizialezko zelaian dantzatu zen aureskua eta ondoren futbolari gaztetxoak jokatu zuten Irungo ekipoaren aurka.



SAN ISIDRO

Igandea izanik, jendetsua izan da Isidro deunaren eta baserritarrentzat hain jai handia denaren ospakizuna. Betiko prozesio, feria, idi dema eta bazkariaren ondoren, herriko baserritar zaharrei omenaldia burutu zen eta herri kirolak izan ziren plazan. Herriko lau gazte taldek hartu zuten parte, lau mutil talde bakoitzeko eta jarritako lanak ondo betez. Aupa mutilak!



gizarte
kutxa



construcciones
ceyma s.l.

HORMIGOIZKO ESTRUKTURAK

Estructuras de hormigon armado

URBANIZAZIO ETA ZOLADURAK

Urbanizaciones y pavimentaciones

SANEAMENDU ETA UR HORNIDURAK

Saneamientos y abastecimientos de agua

IGELTSUGINTZA Albañilería

Paseo Txalaka, 4 - Barrio Ergobia

Telf. 943 55 06 99 / Fax - 943 55 33 62

20115 ASTIGARRAGA - (Gipuzkoa)

ELEKTRAGAILUAK 
ARGI



Ezagutu gure
sukaldeak!!!

Ergobia pasealekua, 3 - ASTIGARRAGA - Tel. 943 33 11 40

e-mail: mayoz@argui.e.telefonica.net

Baserri gintza, gure sustraietan

